

**HERIOTZAREN TRATAERA**

**HAUR HEZKUNTZAN:**

**4 ETA 5 URTEKO GELETARAKO**

**PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

**GRADU BUKAERAKO LANA**

**EGILEA: Martínez Suárez, Naroa.**

**ZUZENDARIA: Arnal Gil, Javier Ignacio.**



“Ez prestatu bidea haurarentzat  
Haurra biderako baizik.”

**Anonimoa.**

“Al fin y al cabo la vida,  
es camino hacia la muerte.”

**Vicente Fernández.**

## SARRERA

Hurrengo orrialdeetan garatuko den Gradu Bukaerako Lanean gaur egungo curriculumean tabua den heriotzaren gaia gainditzeko lehenengo urrats bat eman nahi da. Horretarako, Haur Hezkuntzako ziklotik heriotza naturaltasunez txertatzeko proposamen didaktikoa luzatzen da.

Heriotza gaur egun geure gizartean isilpeko eta umeei ezkututzen zaien gaia izanik, hezkuntzako profesionalok hutsune handia daukagu heriotza gure gelara iristen denean.

Lan honek, ikasgeletan heriotza eman aurretik, bizitza-zikloaren etapa gisa eta familia guztietan presente dagoen edo egongo den gaia den legez landu nahi du.

Aipatu bezala, hasierako pausu bat baino ez du izan nahi, euskaraz dagoen material urritasunari erantzunez.

Material hori sortzeko, bilaketa teoriko sakona eta baita umeekin harremanetan dauden helduei galdetegiak ere egin dira. Horretatik abiatuta *bizitza-zikloa* eta *familia eredu*en atal osagarri gisa lantzen duen 10 jarduerako proposamen didaktikoa plazaratzen da.

Amaitzeko, proposamenaren proba-pilotuaren ondorioak eta hobekuntza proposamena ere eskaintzen dira. Baita jarduera aurrera eramateko beharrezkoa diren material guztiak ere.

**Hitz-gakoak:** heriotza, haur hezkuntza, familia, bizitza-zikloa, proposamen didaktikoa, hezkuntza.

## INTRODUCCIÓN

Con este Trabajo de Fin de Grado que se presenta a continuación, se quiere dar un primer paso hacia la superación de un tema tabú en el curriculum escolar: la muerte. Para ello, se ofrece una propuesta didáctica que ayude a introducir la muerte con naturalidad desde el ciclo de Educación Infantil.

La muerte es, a día de hoy y en nuestra sociedad, un tema que se lleva en silencio y que se les esconde a los niños y niñas. Por todo ello, los y las profesionales de la educación, tenemos un gran vacío cuando la muerte se nos presenta en el aula.

Este trabajo pretende trabajar la muerte antes de que ésta llegue al aula, como una etapa más del ciclo vital y como un hecho que está o estará presente en todas las familias. .

Como se ha citado anteriormente, esta propuesta sólo pretende ser un mero primer paso, respondiendo a la escasez de material que encontramos en euskera.

A la hora de crear el material, se ha realizado una amplia búsqueda teórica y también se han llevado a cabo encuestas a diversas personas adultas que están en contacto con la infancia. Partiendo de estas premisas, se ofrece una propuesta didáctica formada por 10 actividades, la cual trata la muerte como un apartado más incluido en el *ciclo vital* y los *modelos de familia*.

Para finalizar, se incluyen las conclusiones de la prueba piloto llevada a cabo, así como diversas propuestas de mejora. Junto con ello se aportan todos los materiales necesarios para llevar a cabo dichas actividades.

**Palabras-clave:** muerte, educación infantil, familia, ciclo vital, propuesta didáctica, educación.

**AURKIBIDEA**

SARRERA .....	3
JUSTIFIKAZIOA, GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA .....	6
HELBURUAK .....	11
METODOA .....	12
MARKO TEORIKOA .....	15
<i>Heriotzaren ulermena</i> .....	15
<i>Heriotza komunikatzea</i> .....	19
<i>Zer eta nolakoa da dolua?</i> .....	22
<i>Heriotzak euskal autonomia erkidegoko curriculumean (2009) daukan presentzia</i> .....	24
INKESTEN EMAITZA ETA ONDORIOAK .....	29
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA .....	37
ONDORIOAK .....	38
HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK .....	46
BIBLIOGRAFIA .....	48
ERANSKINAK .....	50

## **JUSTIFIKAZIOA: GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA**

Heriotza ezinbestekoa, unibertsala, ekidinezina eta, bereziki, naturala da. Hala ere, gure gizartearen tabu handienetariko bat da, eta, zer esanik ez, Hezkuntza Sistemari Haur Hezkuntzako umeei. Horregatik guztiagatik, lan honek heriotzaren gaia tratatuko du; argitxo bat piztearren iluntasunaren erdian.

Heriotza bizitzaren ondorio zuzena da. Ezin da bizitarik heriotzarik gabe ulertu, denon patua baita. Hala eta guztiz ere, gizartean eta bereziki Eskolan<sup>1</sup> jaiotzaz eta hazkuntzaz argi eta garbi hitz egiten da; azken urteotan baita ugalketaz ere; baina zein momentutan hitz egiten da heriotzaz? Beste aukerarik ez dagoenean, hitz eginez gero eta zoritxarrez. Ikasgelan haurdunaldi goiztiarra agertu ondoren sexualitateaz hitz egitea bezala ez al da hori? Gainera, heriotza bat jazotzerakoan, sufrimendu handiko momentu horiek ez dira, gure ustetan, inolaz ere, heriotzaz berba egiteko unerik egokienak –umearentzako hurbilekoa den heriotza bat gertatuz gero, berau komunikatu eta doluan lagunduko zaio, baina ez da heriotzaz talde handian hitz egiteko aukera aproposena–.

Bestalde, ekidin ezineko bizipen bat izanik, heriotzaren bat ikasturtero gertatuko da ikastetxeetan, esperientzia hori gertuagokoa edo urrunagokoa izango delarik: ikasleen aldetik (duela urteak buruaz beste egin zuen izebaren tabua, gaixo egon ondoren hildako ikaslearen amona, jaio eta berehala hildako bikia, gaixotasun larria daukan ikaslea...), zein irakaslearen aldetik (auto istripuan hildako laguna, lagun-minaren aitaren heriotza...).

Aipatutako gertaerek lan-urte askoren ondorioa badirudite ere, azken bost ikasturtetan ikusitakoak baino ez dira. Egoera hauen aurrean, formakuntzarik gabe sentitzen gara irakasleok. Irakasle-ikasketetan gai hau kasik ez da lantzen eta, arestian aipatu bezala, gizartean oraindik ere tabua da. Ondorioz, Marzabal-en (2007, p.23) aburuz, helduontzat ere:

Heriotza misterio bat izaten jarraitzen du. Ezer gutxi dakigu berari buruz, egunen batean guregana iritsiko dela baino ez. Izan

---

<sup>1</sup> “Eskola” hitza hemendik aurrera hizki larriz adieraziko da instituzioari erreferentzia egingo diolako. Ez gara eskola zehatz batez arituko, alegia, baizik eta edozein eskolaz.

ere, denok hilko garenaren ziurtasuna izanda ere, heriotzaz beti hirugarren pertsonan hitz egiten da, beti da beste bat bizia uzten duena. Hori dela eta egiten zaigu hain zaila heriotzaz hitz egitea.

Irakasleok, hezkuntza-sistemako partaide garen aldetik, ez gaude heriotzaz hitz egiten duen testuinguru batean heziak. Poch Avellán-ek (2009, p.53) dioten bezala “helduak, euren aldetik, desinformaturik eta baliabiderik gabe daude hurrekin galera, heriotza edo dolua tratatu nahi dutenean”.

Gainera, gaur egungo gizarteak heriotzaren irudi hutsala eta ezkutukoa eta heriotzaren inguruko errituen galera ekarri du (Cortina, de la Herrán & Nolla, 2009). Ideia hori Manjón-ek (2004, p.1) egindako ekarpenak indartzen du:

Gertuko heriotzak lekurik ez duen arren, horietatik aldentzen gaituen gizarteak berak, telebistaren, zinemaren eta prentsaren bitartez biolentziaz eta heriotzez gainezka egiten digu. Hala eta guztiz ere, heriotza horiek hotzak eta urrunekoak dira, non emozio eta sentimendurik ez dagoen. Maiz bortitzak diren beste errealitate batzuekiko (gerrak, goseteak, biolentzia...) bihozgabe bilakatzen gaituzte.

Heriotzak, gure gizartean tabua izanik, beldur handia ematen du. “Hain beldur handia ematen du, maiz desorientatu egiten garela. Orduan, heriotza gezur handi bat bilakatzen dugu: alde batetik, umeez inoiz ez dute egun bezainbeste heriotza ikusi; bestalde, inoiz ez da hain gutxi hitz egin beraiekin heriotzaz” (Arnaiz, 2003, p.7).

Beraz, hurrek inoiz baino heriotza gehiago ikusten duten arren, Cortina-k, de la Herránek eta Nollak (2009) eta Manjón-ek (2004) dioten bezala, zentzuz hustu dituzte eta publikoki ez zaie inolako sentimendurik lotzen galera horiei. Horien ideia Hernández Arias-ek (2000) indartzen du, gaur egun heriotzak misterio bat izateari utzi eta arazo bilakatu dela esanez. Bere aburuz, dagoeneko ez baita heriotzaren funtsaz hausnartzen. Gaur egun heriotza bortitzak aisialdirako ikuskizun bilakatu omen dira eta heriotza bortitz horiek gertuko heriotzekin orekatzeko jarduera gisa, heriotzaren funtsaz hausnartzea komenigarria ote litzatekeen planteatzen du egileak.

Bestalde, seme-alaben eta gertuko beste senideen heriotzak bizi izan dituztenen iritziak entzunda, heriotzaz hitz egiteak duen garrantziaz kontziente egiten gara. “El último viaje” (Documentos TV, 2008) dokumentaleko parte-hartzaileek honako ideiak agertzen zituzten, besteak beste: haurrak heriotzatik baztertzen ditugun heinean bizitzatik ere aldentzen ditugula; heriotza gure bizitzaren azken orrialdea dela; eta, hori dela eta, heriotza –alegia, heriotzarako prestatzea– bizitza osoan zehar egin daitekeen prozesu bat dela. Horrelako baieztapenak entzutean konturatu gaitzke gure gizarteak orokorrean eta Hezkuntza Sistemak zehazki dituen hutsuneekin.

Ildo beretik, “Muerte y el duelo” lan monografikoaren sarreran Poch Avellán-ek (2009, p.53) “Heriotzarako heztea bizitzarako heztea” dela eta “hiltzeko prestatzea hobeto bizitzea” dela baieztatzen du. Testu berean, “hezteak haurrak haztea suposatzen badu, prozesu horrek izatearen alderdi gogorrenetatik eta zailenetatik kanporatzea ezinezkoa” dela argi ziurtatzen du.

Gabezia horietaz kontziente, Eskolarako baliabide bila hasita, ezer gutxi topatu daiteke, are gutxiago euskaraz. Ezta Euskal Autonomia Erkidegoko Curriculumean (2009) ere. Ahultasun-puntu horiek guztiak eta haurtzaroan tratatu gabeko ondorioak helduaroan argiak direla kontuan hartuta, sakonki aztertu beharreko gaia dela ikusten da. Manjón-ek (2004) baieztatzen duen bezala, helduaroako patologia psikiko gehienak, haurtzaroan garatu gabeko edo gaizki garatuko doluen ondorio dira eta.

Honen harira, azpimarragarriak dira Worden-en (1996) ikerketen emaitzak. Bertan, gurasoen heriotzaren ondorengo bi urtetan zehar doluan arriskua edo zailtasunak erakusten ez zuten haurrak, heriotzari modu aktiboan aurre egin zieten familiako kide zirela baieztatzen zen. Familia horietan tentsioa baxua zen, aldaketa gutxi ematen ziren eta umearen eguneroko bizitzako errutinak ahalik eta gutxien hausten ziren. Erreferentziazko heldua galdu izan arren, haur horiek sozialki aktibo jarraitzen zuten, euren auto-estimak ez zuen aldaketarik sufritzen eta bizirik zirauen gurasoaren galeraz ez ziren beldur; adituaren ikerketen emaitzek islatzen dutenez.



Baieztatu daitekeen legez, heriotza ez da gertatu ondorenean bakarrik landu beharreko errealitatea. Heriotza gertatutakoan galera sufritu dutenen dolu prozesuan lagundu behar dugun arren, edozein haurrak heriotzaren inguruko hezkuntza jasotzeko eskubidea du bizitzaren zikloaren azken urrats bezala.

Adituek aspaldidanik heldu diote heriotzaz hitz egiteak duen garrantzi horri. 1935ean Russell-ek (1935/2000, p.145) beste ideia batzuen artean “heriotza hitz egin nahi ez dugun gai bat denaren edo horri buruz umeez pentsatu nahi ez dugunaren sententzia ez sortzea” aholkatzen zuen. Heriotzaren inguruko sententzia hori ematen badiegu “misterio interesgarri bat dela ondorioztatuko dute eta horretaz gehiago pentsatu”.

Hots, aurretiaz heriotzaz naturaltasunez hitz egiten bada, gertutik eta lehen pertsonan bizi behar duenean, ahal den neurrian behintzat, haurra –baita helduok ere– gaiarekin ohitua egongo da. Horrela, momentu latz hori iristerakoan inplikaturako pertsonak heriotzaz hitz eginda badaude, prozesua erraztuko da. Izan ere, galeraren momentuan inplikaturako pertsonengan honek daukan eragina bortitza izaten da. Horrek, aurretiaz landutako giro baten beharra azaleratzen, momentuko desoreka eta atsekabeak egoerari aurre egiteko indarrak gutxitzen dituelako.

Horretaz gain, ez dago Haur Hezkuntzako bako garai hoberik, non hurrek naturaltasun osoz euren jakin-min bizia agertzen duten inguratzen dituen edozeren inguruan. Beste gai batzuekin berdin egin behar den arren, Izagirre-k (2003, p.9) oraingoan dagokigun gaiak zehatz-mehatz baieztatzen du: “txiki-txikitatik hasi beharko litzateke heriotzaren pedagogia lantzen, baldin eta adin bakoitzean gauzak ulertzeko dauzkagun ahalmenak errespetatzen baditugu”. Egile berak “gure helburua (...) txikitatik heriotzaren egiazko izaeraz ohar dadin laguntzea” dela azpimarratzen du.

Arestian aipaturiko guztia kontuan hartuta, heriotzaren inguruan dagoen hutsunea, baita testuliburuetan ere (ikus. 1. eranskina –liburuaren azterketa–), betetzen hasteko beharra antzematen da.

Beraz, lan honen helburua informazioa jasotzea eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko (4 eta 5 urteko) ikasgeletan abian ipintzeko proposamen

didaktikoa egitearena da, horrela, kasu puntualetan landu beharreko gaia izatearen estereotipoa hautsi, eta, ahal den neurrian eta pixkanaka, normaltasunez jorratzen den gaia izan dadin.

Gizarteak sorturiko tabua hausteko bidean urrats bat eman nahi da, hain zuzen ere.

## HELBURUAK

Gratu Bukaerako Lan honen funtsa heriotza Haur Hezkuntzako ikasgeletara helarazteko bidea erraztearena da. Azken xede gisa 4-5 urteko geletan (Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako ere moldagarria izan daitekeena) aurrera eramateko proposamen didaktikoa diseinatuko da. Horretarako hainbat helburu zehatz aintzat hartuko dira:

- **Heriotzaren tabua gainditzen aurrerapausoa ematea.** Tabuak gizarteak sortutakoak direnez gero, gai horiek landu eta plazaratzen diren heinean, ohiko gai bihurtu daitezkeela ikustaraztea.
- **Heriotzaren pedagogiaren aldeko apustua egitea.** Hainbat egileren ekarpenak aztertu eta landu ondoren, heriotzaren pedagogian indarra jartzea, heriotzaren bat gertatutakoan doluaren pedagogiari heldu beharko zaiola ahaztu gabe.
- **Eguno hezitzaileen errealitateari helduz heriotzaren trataerarako materialaren eskaintzan laguntzea.** Heriotza ikasgelan tratatzeko zailtasunak gaindituko ez dituen arren, bide horretan urrats txiki bat gehiago eskaintzea diseinatutako proposamenaren bidez.

Jarraian, helburu horiek lortu bidean aurrera eraman den metodoa azalduko da.

## **METODOA ETA BALIABIDEAK**

Gradu Bukaerako Lan honek, Heriotzaren Pedagogiaren oinarrien eta gaur egungo hezitzaileok, profesionalok zein umeen senideek, ditugun zailtasun eta beharrei erantzuna ematearen arteko zubia izateko asmoa dauka. Berau aurrera eramateko erabili diren baliabide eta prozedurak oso anitzak dira (ikus. 2. eranskina –kronograma–).

Lehenik eta behin, lan honen oinarri izan nahi duen azterketa teoriko bat burutu da, horretarako gaia jorratzen duten hainbat artikulu, liburu zein ikus-entzunezkoak kontsultatu direlarik. Azterketa honetan, gaian adituak diren eta heriotzaren inguruko bizipenak izan dituztenen aholkuak biltzeko saiakera egin da; beraiek, inork baino hobeto, baitakite zer-nolako hurbilpena egin behar den heriotzarekiko denontzako esperientzia aberasgarria izan dadin. Modu honetan, beste aditu batzuen artean, de la Herránek, Cortinak eta Wordenek gai honen inguruan egin dituzten ekarpenak islatu dira aipatutako atalean.

Ondoren, egindako azterketa teorikoan oinarritutako galdetegi bat sortu da (ikus. 3. eranskina –inkestak-). Bertan, inkestatuek haien datu pertsonalak idazteko tokiaz gain, 1etatik 5era baloratu beharreko galdera itxi zein era laburrean erantzuteko moduko galdera irekiak agertzen dira.

Lehenengo galderek informazio orokorra modu neurgarrian eskuratzeko balio dute. Bereziki, heriotzari buruz umeekin hitz egiten duten eta euren aburuz hitz egin behar ote den jakiteko.

Galdera irekiek, berriz, kasu bakoitzaren berezitasunak jasotzeko balio dute. Horien bidez, gaian sakondu eta proposamen didaktikoan indarra non jarri behar den antzeman daiteke. Era berean, gaiaren lanketarekiko hutsune, ez-jakintasan eta zalantzak azalarazteko aukera ere eskaintzen dute.

Behin galdetegiak prestatuta, hezkuntzan inplikaturik dauden eragile desberdinei helarazi zaizkie; izan ere, horien parte hartzea ezinbestekoa da haurrak eta Eskola heriotzarekin harremanetan jartzeko.

Gauzak horrela, lehenengo inkestatuak Haur Hezkuntzako hezitzaileak izan dira. Honen arrazoia begi-bistakoa da: hezitzaileentzako erabilgarria den

materiala sortu nahi bada, ezin ditugu hauek proposamen didaktikoaren prestakuntzatik at utzi; materiala beraingandik eta beraiek kontuan hartuta prestatzea oso garrantzitsua da.

Haurren senideak bigarren inkestatuak izan dira; hauek umeen lehenengo sozializazio agenteak direla ezin delako ahaztu. Eta, aldi berean, proposamen didaktikoan islatzen den bezala, familien ikuspegi desberdinak kontuan hartu eta errespetatu egin behar direlako.

Azkenik, etorkizuneko hezitzaileak formatzen dituzten unibertsitateko irakasleak daude. Etorkizuneko hezitzaileak formatzen dituzten heinean, garrantzitsua da agerian uztea zein den errealitatea: hezitzaileak nahiko prestatuak ateratzen dira gai deserosoak gelan tratatzeko?

Gainera, galdetegia perfil desberdina duten pertsonak erantzun zezaten, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan pasatu da.

Horretaz gain, aniztasun handiagoa bilatu nahian, hezitzaileen taldean ondorengoak izan dira inkestatuak: tutore eta errefortzuko andereñoak; langile finko zein ordezkioak; urte gutxiko zein anitzeko esperientziadunak; ama direnak eta ez direnak...

Senideen artean, berriz, amak eta aitak; familia eredu tradizionalekoak zein banatutakoak; seme bakarrekoak eta gehiagokoak; Lanbide Heziketakoak eta unibertsitatekoak; kirolari profesionalak...

Unibertsitateko irakasleen artean perfil desberdinak lortzea izan da zailena, bi campusetako irakasleen erantzunak baino ez baitira eskuratu: Arabako Campuseko Gasteizko Irakasle Eskolakoak eta Bartzelonako Unibertsitateko Autonomokoak.

Galdetegietatik lortutako informazio hori guztiori ondorioetan bildu, eta, aurkitu diren hutsuneei erantzuna emateko asmoz, proposamen didaktikoa diseinatu da. Esan beharra dago gaia jorratzen duten materialak, gutxi eta erdaraz diren arren baliagarriak direla. Hori dela eta, material horiek –bereziki Cortina eta de la Herrán-enak– bildu, ateratako ondorioekin gaur egungo errealitatera egokitu, osatu eta, azkenik, euskaratu dira.

Jarraian, proposamen didaktikoa aurrera eramateko konfiantzazko hezitzaileengana jo da, modu esperimental batean gelan martxan jarri eta emaitzak aztertzeko.

Gradu Bukaerako Lana ixteko, proposamena aurrera eraman izanaren emaitzak aztertu dira.

## MARKO TEORIKOA

### HERIOTZAREN ULERMENA

Heriotzaren kontzeptua bere osotasunean ulertzeko hainbat azpi-kontzeptu barneratu beharra dago. Berauek adinarekin eta esperientziekin barneratzen goaz (Álvarez, 2014):

- **Unibertsaltasuna:** Bizidun guztiak hiltzen garela ulertzea, denon amaiera hori dela, guztiok berdintzen gaituen ezaugarri bakarra.
- **Itzulezintasuna:** Behin hilik, berriro ere bizitzara ezin garela itzuli.
- **Funtzionaltasun eza:** Heriotza gertatu ondoren, gorpuak bizi-funtzioak aurrera eramateari uzten diola; ez duela arnasten, ez duela bihotz taupadarik...
- **Kausalitatea:** Heriotza gertatzeko arrazoi bat badagoela; gaixotasun larri bat, istripu bat, buruaz beste egitea...
- **Gorputz-gabeko jarraitasuna:** Erlijioen arabera, azalpen desberdinak daude. "Heriotza amaiera bat al da?" galderari erantzun bat bilatu behar zaio. Inork ez daki egi osoa, baina bakoitzak azalpen bat dauka: heriotza azken urratsa dela eta ez dagoela ezer hil ondoren, bizitzan izandako portaeraren arabera zerura edo infernura goazela bertan amaigabeko bizitza aurrera eramatera, gure arimak beste gorputz batean bizi berri bat hasten duela...

Kontzeptu horiek guztiak, esan bezala, adinarekin, garapen kognitiboarekin eta hazkunde biologiko eta emozionalarekin barneratzen goaz.

Hori dela eta, jarraian agertzen den taulan, Haur Hezkuntzako umeek adinaren arabera heriotza nola ulertzen duten adierazten da. Horretaz gain, ondorio gisa aurkezten dituzten portaera ohiko batzuk azaltzen dira. Eta, azkenik, helduak heriotza baten aurrean haurrak nola jaso behar dituen eta nola eman heriotza horren berri.

Horretarako, Manjón (2004), Muñoz de Ana (2014) eta Álvarez (2014) egileen lanak hartu dira kontuan.

<i>ADINA</i>	<i>ULERMEN MAILA</i>	<i>PORTAERA OHIKOAK</i>	<i>HELDUAREN LANA</i>	<i>HERIOTZAZ INFORMATZEA</i>
0-1	<p>Ez dute heriotzaren kontzeptua inola ere ulertzen.</p> <p>Falta dena gertuko pertsona bada, hutsunea antzematen dute.</p> <p>Inguruko giroaren egoera ezohikoaz jabetzen dira.</p>	<p>Arrazoi argirik gabe negar egitea.</p> <p>Loa edo-eta janaren ohiturak aldatzea.</p>	<p>Ahalik eta giro lasaiena eskaini, errutinekin alde gutxien duena.</p> <p>Falta den pertsonak haurrari eskaintzen zizkion arreta eta afektua gertuko norbaitek ordezkatzeari. Heriotza aurreikusten bada, pertsona hori lehen bailehen umearen egunerokotasunean sartu.</p>	<p>Heriotzaren momentuan bertan haurrarekin hitz egitea, falta dena hil denaz.</p> <p>Horrek haurra hiztegiarekin eta heldua gaiarekin ohitzea ekarriko du, konfiantza giroa erraztuz.</p>
1-2	<p>Esanguratsua den zerbait gertatu denaz konturatzeko hasten dira.</p> <p>Garrantzitsua den norbait falta da.</p>	<p>Erregresioak ager ditzakete.</p> <p>Haserrealdiak eta negarraldiak izaten dituzte, horrekin falta dena itzuliko balitz bezala.</p> <p>Pertsona itzul dadin itxaroten dute.</p> <p>Jolasengatik, ekintzagatik, janariarengatik interesa galtzea.</p>	<p>Ahalik eta giro lasaiena eskaini, errutinekin alde gutxien duena.</p> <p>Afektu, arreta eta laguntza gehigarria eskaintzea.</p>	<p>Familia hil denagatik triste dagoela eta denbora baten buruan hobeto sentituko direla azaltzea.</p> <p>Handitzen doazen bitartean, tarteka heriotzaz galdetuko du helduak, komunikazioa errazteko.</p>



ADINA	ULERMEN MAILA	PORTAERA OHIKOAK	HELDUAREN LANA	HERIOTZAZ INFORMATZEA
2-3	<p>Heriotza joatearekin eta agertu-desagertzearekin parekatzen dute. Abandonua eta galera gisa ulertzen dute. Heriotzarekiko beldurra baino, banaketarekikoa daukate. Bizitzaren ondorio ikusi beharreak, biolentzia edo istripuen ondorio gisa ulertzen dute heriotza.</p>	<p>Erregresioak ager ditzakete. Jolasengatik, ekintzagatik, janariarengatik interesa galtzea.</p>	<p>Ahalik eta giro lasaiena eskaini, errutinekin alde gutxien duena.</p>	<p>Lehen bailehen, familia hil denagatik triste dagoela eta denbora baten buruan hobeto sentituko direla azaltzea. Esaten duenarekin esan nahi duena ulertzen ez badugu, azalpenetan galdu aurretik, benetan zer jakin nahi duen bermatu.</p>
3-5	<p>Emozio biziak senti ditzakete, nahiz eta heriotza behin-behineko eta irrealizat jotzen duten. Euren ideietan, hil den pertsona jaten, arnasten eta izaten jarraitzen du</p>	<p>Hil denagatik negar egin dezakete. Erregresioak ager ditzakete. Transiziorako objektu lasaigarri bat erabili dezakete. Anbibalentzia.</p>	<p>Heriotzaren hurrengo egunetan gertatuko dena zehatz-mehatz azaldu eta galderak egitera animatu. Agur-ekitaldietara joan edo ez umearen esku utzi, beti gertuko heldu bat bere ondoan egongo delarik.</p>	<p>Euren ulermen mailari egokitutako hizkuntzaren bitartez lehen bailehen heriotzaz informatzea, beharrezkoak ez zaizkien xehetasunetan sartu gabe. Haurrak jakin-min handia agertu ohi du eta bere</p>

3-5	eta momenturen batean esnatuko dela uste dute, bizitza berreskuratuz.	Jolasen bitartez euren mina azaltzea. Beste galera batekiko beldurra agertzea. Errealitatea konprobatzea, benetan itzultzen ez dela.	Segurtasun eta konfiantza giroa sortu. Helduak bere sentimenduak konpartitu eta negar egitea eta triste edo haserre egotea normala dela adieraztea.	galderak erantzuteko prest egon beharko du helduak: Non dago? Hotz da? Jan edo edan dezake? Noiz eta nora doa? Zergatik ez dator?... Heriotzaren itzulezintasunaz argi hitz egin behar zaie, nahiz eta hildakoa itzuliko dela behin eta berriz aipatu. Haurrak garatzen doazen heinean kontzeptua bereganatuko dute.
5-6	Hiltzea behin behinekoa dela uste dute. Helduek edozein arriskurengandik babes ditzaketeela uste dute. Heriotza kutsagarria dela eta ingurukoak hil daitezkeela uste dute.	Iluntasunari beldurra diotela eman dezake, baina pertsona hurbilak hil daitezkeenaren beldur dira. Etapamagiko eta ahalguztidunean daudenez, heriotzaren errudun eta erantzule senti daitezke.	Ahal den neurrian euren etxetik eta konfiantzazko girotik ez atera, estresa areagotu baitezake.	
<i>ADINA</i>	<i>ULERMEN MAILA</i>	<i>PORTAERA OHIKOAK</i>	<i>HELDUAREN LANA</i>	<i>HERIOTZAZ INFORMATZEA</i>

## HERIOTZA KOMUNIKATZEA

Hurrek, euren aldetik, heriotzaren izatea sumatzen dute eta euren momentuko egoeraren arabera honen inguruko galderak egiten dizkiote bere buruari.

Bestalde, aurreko taulako azken zutabeari helduz, hainbat alderdi kasu guztietan presente izan behar ditugula esan beharra dago. Izan ere, haurrari sortzen zaizkion galderen aurrean erantzunik ez edo erantzun nahasiak jasotzen baditu, euren teoriak eraikiko baititu. Horrek doluaren garapenean zailtasunak ekar ditzake. Bide horretan lagungarri izateko garatzen da heriotzaren pedagogia. Izagirre-k (2003, p.12) aipatzen duen legez, korronte honen “helburua krisien aurrean bitartekoak sortzea, akatsak eta sinesmen faltsuak desmitifikatzea, tabua natural bihurtzea da”.

Dena den, umeak pentsamendu egozentriko eta fantastikoengatik mugatuak eta bizipen emozionalengatik baldintzatuak daude. Beraz, euren beharrei egokitutako erantzuna izan behar dugu heriotza baten edo-eta heriotzaren kontzeptuari buruz sortzen zaizkien galderen aurrean.

Horretarako, hainbat aholku luzatzen ditugu Alvarezen (2014) eta Cortina-ren (2009) ideiei helduz:

- Heriotzaren berria lehen bailehen helaraztea umearentzat emozionalki gertukoena den pertsonaren bitartez. Eta, ahal izanez gero, haurrarentzat segurua den toki batean. Alegia, ezagunena egiten zaiona, lasaia eta isila.
- Gurasoak bertan ez badaude, ezin izan dutelako dela argi utzi haurrari eta, era berean, bakarrik ez dagoela eta asko maite dugula badakiela ziurtatu.
- Haurrak “heriotza” eta “hilik egotea”-ren ulermenean zein etapatan dagoen aurreikustea, azalpenak eta erantzunak horri egokitutako hizkuntzaz emateko.
- Azalpenotan benetan zer ulertu duen eta zer galdetzen duen bermatzea. Hots, ezin dugu ezer ulertutzat eman ezta guk galdetzen duena uste dugunari erantzuna eman. Horregatik, askotan umeari galderak egin beharko dizkiogu: zer ulertu duzu?, zuk zer uste duzu?... Horrela lagunduko baitugu benetan haurra errealitatera hurbiltzen.
- Euren minen eta sentimenduen edozein adierazpen onartua izango dela ahoz adierazi. Sentimendu desberdinak izan eta plazaratzeko eskubide osoa dutela jakinarazi. Tarteka pozik sentitzea eta jolasteko gogoia izatea oso normala dela esan, errudun sentimendua ahal den neurrian saihesteko.

- Helduak bere emozioak eta pentsamenduak haurrarekin partekatzea aberasgarria izaten da, epaitua izango ez dela argi izan dezan. Eta umearen sentimenduei hitza jartzen saiatuko gara.
- Ematen den informazioak, uneoro umearen ezaugarrietara egokitua izango den arren, benetakoa eta egia izan behar du, baina beharrezkoak ez diren zehaztasunak eman gabe. Haurrarekin argi hitz egin behar da (kontzeptu abstraktuetan galdu gabe), konfiantza sentitu dezan eta sor daitezkeen zurrumurruen aurrean indartsu sentitu dadin.
- Eufemismorik ez erabili. Bidaia batera joan dela, lo dagoela... esaten badiogu haurrari, ez du heriotzaren kontzeptua ongi ulertuko eta, gainera, egunerokotasuneko ekintzen aurrean beldurra aurkez dezake.
- Hainbat galderentzako erantzunik ez dugula onartu, umeak konfiantza jaso dezan.
- Kontaktu fisiko egokia erabili: begirada maila berean jarri, umea besarkatu behar izanez gero, bion artean oztopo fisikorik ez egotea, ahots maitekor eta lasaiar aritzea...
- Siniste erlijiosoei dagokienez, denak errespetatu, baina sinesmenak direla jakinarazi, erantzun bakarra ez dagoela.
- Hiletara joan nahi badu, joaten utzi, aurrez, gertatuko den guztia argi utziz. Beraiek ere hildakoa agurtzeko beharra sentitzen dute.
- Hildakoa gogora ekarri eta berari buruz tarteka hitz egin haurrarekin, berarekin bizitako momentu onak eta une zoriontsuak bereziki azpimarratuz.

Orokorrean, esan genezake umeei luzatuko zaien informazioa beti egia izango dela ez baitzaie gezurrik inoiz esan behar. Horrek ez du esan nahi edozer gauza eta edozein erataria esan daitekeenik, informazioa adinari egokitu beharko zaiolako, umearen etaparen arabera hainbat zehetasun eskainiko ez direlarik –horretarako goiko taula orientabide lagungarria izan daiteke–. Haur Hezkuntzako umeek azalpen labur eta sinpleak behar dituzte. (Centro Clínico de los Institutos Nacionales de la Salud, 2007). Umeen galderaren baten erantzuna ez badakigu, argi eta garbi esango dugu ez dakigula.

Centro Clínico de los Institutos Nacionales de la Salud-ek (2007, p.4) argitaratutako txostenean Earl A. Grollman doktoreak umeei heriotza azaltzeko laguntza eskaintzen du:

Heriotza umeek ezagutzen dituzten bizi-funtziorik ez egotearekin hobeto azaldu daiteke: pertsonak hiltzen direnean jada arnasarik hartzen ez dutela, ez dutela jaten, ez dutela hitz

egiten, ez dutela pentsatzen eta ez dutela sentitzen, edo txakurrak hiltzen direnean zaunka egiteari eta korrika egiteari uzten diotela edo hildako loreak dagoeneko ez direla ez hazten ezta loratu ere.

Azkenik, aipatu beharko litzateke, erlijioen inguruan, hauek sinesmenak direla azaldu beharko zaiela –beti ere galdetzen duten heinean–, inork ez dakiela zer gertatzen den hil ondoren, inork azaldu ez digulako. Egokia izan daiteke pertsona desberdinek sinesmen ezberdinak dituztela esatea, eta denek ez dutela guk sinesten duguna sinesten (Centro Clínico de los Institutos Nacionales de la Salud, 2007). Eta heriotza azaltzen duen heldua erlijioso bada, bere sinesmenak zeintzuk diren azaldu, sinesmenak direla argi utziz.

Hau guzti hau umeari entzuten diogula erakusten diogunaldi berean egin beharra dago, horri Izagirre-k (2003, p.19) entzute aktiboa deitzen dio: “Beste norbaiti enpatikoki laguntzeko kalitatez entzuten jakin behar dugu eta ekintza horri entzute aktiboa deritzo”. Psikologoaren hitzetan (2003, p.19), “entzute aktiboa praktikatzeko kontuan izan behar dira honako elementu hauek”:

- 1) Hitza kendu gabe entzutea.
- 2) Arreta eta errespetua adieraziko duen distantzia eta gorputz-jarrera.
- 3) Hitz egiteko baino entzuteko interes handiagoa.
- 4) Solaskidearen hitzezko mezuak nahiz hitzezkoak ez direnak arretaz jaso.
- 5) Galderak egiteko eta laburtzeko baliabideak erabiltzea.
- 6) Informazioa itzuliz elkarrizketa gidatzeko baliabideak erabiltzea.

Laburbilduz, heriotza baten berri emango dugunean, informazioak egia eta argia izan behar du, umearen adin eta ezaugarriei egokitua eta, aldi berean, garrantzitsuena umea bera da eta ez heriotza komunikatzen duen heldua. Horregatik, entzute aktiboa aurrera eramaten saiatu beharra dago, eta haurren zalantzak argitzen ez badakigu edo euren galderentzako erantzunik ez badugu, argi eta garbi esango diegu.

## ZER ETA NOLAKOA DA DOLUA?

Aurkeztuko den proposamen didaktikoa heriotza gertatu aurretik lantzeko proposamena izan arren, ezinbestekoa da doluaren ezagutza ere izatea. Izan ere, umeak heriotzaren ezagutza izan arren, gertuko heriotza bat biziko duenean dolua gauzatu beharko du, eta irakasleen lana prozesu horretan laguntzea ere izango da. Feijoo eta Pardok (2003) dioten bezala, Eskolaren papera ez da doluan esku-hartzea, ezta bere zailtasunetan protagonismoa hartzea. Halere, bidean laguntzaile lana bete behar du eta horretarako dolua zer-nolakoa den ulertu beharko dugu.

Dolua, galera esanguratsu bat gertatzen denean, berau onartu eta bizitzeko gogo berreskuratzeko mekanismo arrunta eta osasungarria da. Oraingoan heriotzaz bakarrik aritu arren, dolua edozein galerak dakar.

Doluaren prozesua heriotza-arriskua antzematen denean hasten da eta emozionalki berregituratze emozional eta sozial bat da. Beraz, denbora eta aldaketak dakartza (Alvarez, 2014), hildakoa bizirik dirautenen sentimenduetan eta horien bizimodua hildakoa gabe berreraikiz.

Kübler-Ross-en teoriari jarraituz (Feijoo eta Pardo, 2003) doluan daudenak aldarte desberdinetatik pasatzen dira:

- **Ezeztatzea:** Ez da emoziorik sentitzen. Nolabaiteko babes-anestesia sortzen du gorputzak. Prozesua amaitzen denera arte etengabe itzuli egiten da egoera honetara.
- **Tristura:** Tarteka bizitzak zentzurik ez duela sentitzea. Tristura-pasarte bakoitzaren ostean, bereziki negar egin eta penaz hitz egiteko aukera badago, lasaitasuna eta indarberritzea sumatzen da.
- **Erruduntasuna:** Hildakoa norbera gaizki portatzeagatik edo ez maitatzeagatik hil dela pentsa daiteke.
- **Beldurra:** Heriotza norberari edo ingurukoei hel dakiekeela pentsatzen hastea. Umeek beldur honetaz hitz egin

ahal izatea gomendagarria da. Era berean, helduen erantzuna euren sentimenduekiko errespetuzkoa izatea.

- **Sumina:** Hildakoarekin ezin egoteagatik muturreko haserrea. Umeak okerrago portatu ohi dira eta ñimiñokeriengatik haserretu. Honen aurrean, haurrek mugak behar dituzten arren, helduak ulerkorrak izan behar dira eta euren haserrea ulertzen dutela eta pixkanaka hobeto sentituko direla jakinaraziko diete.

Prozesu horretan dauden umeei arretarik eskaintzen ez bazaie, euren dolua saihestu edo laguntzen ez bada, euren osatzea zaildu egiten da. Horretarako, doluaren prozesua beti mingarria dela kontuan hartu beharko da Alvarez-en hitzetan (2014). Min hori dolu arruntetan (ez-patologikoetan) ere ematen da: bai maila fisikoan (buruko mina, lo ezintasuna, elikaduran gora-beherak, nekea, indar falta...), emozionalean (aurretik aipatu diren aldarreak, bakardadea, arintasuna...), kognitiboan (nahasmena, kontzentrazio zailtasunak, oroimen murriztua...) eta jokabidezkoan (hildakoaren arropak usaintzea, isolamendua, hildakoa bilatzea...).

Gainera, norberak aktiboki gauzatu beharreko prozesu indibiduala izan arren, alderdi sozialean ere eragina dauka. Dena den Di Nola-k (2007) aipatzen duen bezala, hiri- eta industria-gizartearen baitan giza-erlazioetan eman diren aldaketa sakonek norbanakoaren eta talde sozialaren arteko haustura eragin dute. Ondorioz, dolua dagoeneko ez da besteekeko elkarrekintzan garatzen, norbanakoaren sufrimendu bakarti eta isolatuan baizik eta bideratua izan ezean neurosi larriak eragin ditzake.

Hori dela eta, doluan dagoenari jakinarazi beharko zaio gauzatuko duen bide horretan laguntzeko prest dituela ingurukoak, bereziki Eskolan, non hainbeste ordu ematen dituen, eta haur hezkuntzako umeein, zeintzuek helduekiko hain menpekotasun handia duten.

## **HERIOTZAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO CURRÍCULUMEAN (2009) DAUKAN PRESENTZIA**

Lan honen xede nagusienetariko bat proposamen didaktiko bat egitea izanik, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan oraindik ere indarrean dagoen Haur Hezkuntzarako curriculuma (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2009)<sup>2</sup> aztertzea ezinbestekoa da. Izan ere, honen 20. artikulua (Ikastetxeen autonomia pedagogikoa) 1. puntuaren dioenari helduz: “Ikastetxeek (...) curriculuma garatuko dute programazio didaktikoen bitartez”.

Lehenik eta behin, esan beharra dago heriotzaren ideia edo edukia inplizituki atal askotan antzeman dezakegula, baina, aldi berean, behin baino ez dela esplizituki agertzen.

Gauzak horrela, atal honetan OCak agertzen duen xede nagusia aztertu, heriotza zein apartadurekin lotu daitekeen plazaratu eta, heriotza OCean argi eta garbi non azaltzen den zehaztuko da.

Hasteko, OCak horrela diola argi utzi beharra dago:

Hurrek bizitzako lehenengo urteetan jasotzen duten hezkuntza alderdi erabakigarria da, gero, pertsona gisa izango duten garapen osorako. Familiari dagokio (...) hezteko erantzukizuna (...) haurren nortasuna egituratu behar duten oinarriko balioak sendotzen dira bertan, gaitasun intelektualak eta afektiboak gartzen, eta helduen kultura transmititzen. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, hezkuntza-eginkizun horretan, familiekin lankidetzan aritzea dagokio eta, horretarako, haurren garapenerako neurri egokienak bultzatu behar ditu.

Beraz, oso garrantzitsutzat jotzen dira haurren bizitzako lehenengo urteak garapen osorako, horren barnean, informazioa aurrerago zabalduko den bezala, garapen afektiboa eta errealitatearen ezagutza zehatza hartzen direlarik. 4. artikuluan, xedeei dagokienean, berriro ere azpimarratzen da ideia

---

<sup>2</sup> Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari (2009) erreferentzia egiteko, hemendik aurrera OC siglak erabiliko dira (Oinarriko Curriculuma) laburtzeko asmoz.



bera (OC, 2009, p.3): “hauek landuko dira arian-arian: garapen afektiboa, (...) bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako funtsezko jarraibideak”.

Horretaz gain, Eskolak familiarekin elkarlanean aritu behar duela azpimarratzen du, hori bermatu nahian gure proposamenak beti senideekiko komunikazioa bilatuko du.

Oinarritzat bi puntu nagusi horiek hartuta, OCean zehar egiten diren hainbat aipamen heriotzaren gaiarekin eta honen jorratzearekin lotuko dira jarraian.

“Afektibitatea garatzea bereziki garrantzitsua da etapa honetan; irakaspenen oinarria da eta haurraren nortasuna eratzen du. Horretarako, funtsezkoa da haurrak, hasiera-hasieratik, emozioak eta sentimenduak pixkanaka onartu, adierazi eta kontrola ditzan bultzatzea” (OC, 2009, p.13). Horri guztiari lotuta helburuetan hauek aipatzen dira (OC, 2009, p.4):

“a) Bere gorputza ezagutzeko, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikas dezan.

d) Bere gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzeko, bere buruaren irudi positiboa eta benetakoa eratzeko.”

Beraz, norbere gorputza ezagutu beharra dago, den bezalakoa onartzeko eta irudi positiboa izanik nork bere burua maitatzeko. Hori bai, benetako irudia izanik. Benetako irudi horretan, ondorioz, noizbait hilko garenaren informazioa eman beharko zaie. Beti ere alarmerik sortu nahi izan gabe. Norbere bizitzaren azkeneko atala dela ulertzeko, besterik gabe.

Helburuen atal berean, honakoa aipatzen da (OC, 2009, p.4):

“b) (...) inguruko gizarte- eta kultura-jardueretan modu aktiboan eta apurka-apurka parte har dezan.”

Alegia, haurrek hildakoak agurtzeko bere ingurukoek aurrera eramaten dituzten erritualak eta ohiturak ezagutzeko eskubidea daukate. Eta, pixkanaka eta dena euren adinari egokitua azalduz, erritual eta ohitura horietan parte hartzeko aukera luzatuko zaie.

Hots, nork bere kultura ezagutuko du baita hildakoak agurtzean ere. Horri ingurukoen bestelako kulturak ezagutzea eta errespetatzea gehitu behar zaio, OCean ere islatzen delarik aurrerago aztertuko den bezala.

Bestalde, Ikastetxearen Curriculum Proiektuak “ikasleen ezaugarrietara eta beharretara (...) egokitu beharko du” (OC, 2009, p.4). Behar horietan, umeen jakin-minak kontuan hartu nahi direla ulertuta, heriotzari buruz duten ikasteko grina errespetatu beharko dela ulertzen da. Gauzak horrela, euren zalantza eta galderei erantzuna emateko asmoz sortu nahi da lan honen helburu den proposamen didaktikoa.

OCeko esparruei helduz gero, hiru agertzen dira eta hiruetan ere heriotzak lotura duela ikusten da:

a) **Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala.** Arestian aipatu bezala, nork bere burua ezagutzeko beharra onartuta, egunen batean denok hilko garela ezagutu beharra dago. Larritasunik piztu gabe, baina errealitatea argi erakutsiz.

b) **Ingurunearen ezagutza.** Besteen bizi-errealitatea zein hildakoen agur-ohiturak eta hildakoaren galerarekiko sentimenduen ezaguera eta ulermena barnean daude.

c) **Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena.** Hurrei gertukoa zaien norbait hiltzerakoan nola sentituko diren edo sentitu diren transmititzen ikastea, eta ingurukoak egoera horretan egoterakoan entzuten ikastea barne sartzen da. Horretarako, “nahitaezkoa da lotura afektiboa ezartzea haurren eta eskola-ingurunekeo helduren baten artean; atxikimenduko irudi bat izatea”.

Lehenengo eremu horretan, helburu bezala “estrategiak garatzea, afektu, (...) oinarritzko beharrak gero eta modu autonomoagoan bete ditzan; eta izandako lorpenekin pozik dagoela adieraztea” agertzen da (OC, 2009, p.14), besteak beste.

Edukietan berriz (OC, 2009, p.16), “gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak identifikatzea” eta “norberaren aldaketa fisikoei hautematea, eta

denboraren jotearekin duten loturari” azaltzen dira. Aipatu bezala, horren barnean hilkorrak garela azaldu behar zaie haurrei, benetako ezaugarriak ezagutu ditzaten eta egunerokotasunean, beti gertu ez bada ere, jazotzen den gertakaria ulertzeko.

Atal berean (OC, 2009, p.16), baina emozioen transmisioarekin lotuta, “norberaren eta ingurukoaren sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak eta interesak identifikatu eta adieraztea” agertzen da. Horretarako, helduen papera komunikaziorako bidea zabalduko duen konfiantzazko giroa garatzearena izango da. Horretarako maisu edo maistra bakoitzaren estilo autentikoa errespetatu beharko da, benetakotasunari eusteko.

Ingurunearen ezaguera den bigarren esperientzia-eremuari buruz dio (OC, 2009, p.20) “ingurune naturala, fisikoa eta soziala osatzen duten testuinguruaren gaineko ezaguera gero eta doituagoa eraikitzeari dagokio”-la. “Ezaguera horrek berekin dakar errealitatearen adierazpen zehatza egitea.” Heriotzari buruz egia esan beharra dagoela ulertzen da. Adin bakoitzari egokitutako informazioa emango da, baina beti ere egia esanez, beste edozein esparruri buruz OCak adierazten duen bezala.

Eta eremu honetan, hain zuzen ere, kultur aniztasunari buruz hitz egiten da, “haurrak gizarte-ohituretara eta usadioetara hurbiltzea gomendatzen du, bai eta beren inguruko kultura-eremuetara hurbiltzea ere” (OC, 2009, p.21). Atal honetan haurrak bere senideen eta ingurukoaren kultura desberdinetan parte hartzea ona dela azpimarratzen da. Beraz, kultura horien zati bezala agertuko da heriotza nola ulertzen den: larriki gaixo daudenen agurra egiteaz, hildakoen agur-ohituraz edo, besterik gabe, ezinegona edo-eta jakin-mina pizten dion gai bezala heriotzaz hitz egiteaz.

Esparru horretan (OC, 2009, p.21) “hurbileko hainbat gizarte-talde, haien zenbait ezaugarri, ekoizpen kultural, balio eta bizimodu identifikatzea eta haien ezagutzera hurbiltzea, konfiantza-, errespetu- eta estimazio-jarrerak sortze aldera” eta “inguruko jai, tradizio eta ohituren berri izatea eta haietan parte hartzea, haietaz gozatzeko eta aintzat hartzeko, nortasun-ezaugarri baitira” helburuak aipatzen dira. Hots, Gabonak, Santa Ageda, danborradak... lantzen diren bezala, azaroaren 1ean zergatik festa dugun landu daiteke eta beste

herrialde batzuetan, esaterako *Noche de las ánimas*, *Día de los muertos* edo *Halloween* ospakizunak nola bizi dituzten ezagutzera eman daiteke Haur Hezkuntzako gelan.

Gauza bera edukietan ere aipatzen da: “Norberaren kultura-nortasuneko eta inguruko kultura-nortasuneko zenbait nortasun-ezaugarri (...) ezagutu eta aintzat hartzea” eta “inguruan dauden gizarte- eta kultura-jardueretan parte hartzea, haiekiko interesa izatea eta daukaten garrantzia ematea” (OC, 2009, p.25).

Azpimarratzekoa da, ordea, ebaluazio irizpide gisa “ingurunea ezagutzeko jakin-mina erakustea” aipatzen dela (OC, 2009, p.25). Nolabaiteko kontraesana ematen da. Hau da, maiz haurrek heriotzarekiko jakin-mina aurkezten dute, baina helduon beldurrek euren galderak erantzuteari uko egitera bultzatzen gaituzte.

Azkenik, esatea, ingurunearen ezagueraren eremuan, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko “Natura ezagutzen hastea” blokean, hirugarren puntuan hain zuzen, aipatzen dela hitzez (OC, 2009, p.24): “Izaki bizidunetan zenbait jokabide, funtzio, ezaugarri eta aldaketa identifikatzea. Bizi-zikloa, jaiotzatik **heriotzarakoa**, ezagutzen hastea. Izaki bizidunei buruzko usteak adieraztea”. Alegia, heriotzaz hitz egin behar dela baieztatzen zaigu OCean bertan.

Laburbilduz, Haur Hezkuntzako OCa zehazten duen dokumentuan heriotza zehazki maiz aipatzen ez den arren, berau landu beharraz hitz egiten da. Hori dela eta, bestelako atal guztietan heriotza inplizituki agertzen dela ondorioztatzen da. Horregatik guztiagatik, OCean heriotzak esplizituki duen presentzia oso urria bada ere, aurkezten dugun proposamen didaktikoa horrekin bat datorrela argi geratzen da. Are gehiago, heriotzaren gaiari heltzea beharrezkoa izanik, proposamena guztiz koherentea ikusten da.

## **INKESTEN EMAITZA ETA ONDORIOAK**

Arestian aipatu bezala, ikerketa teorikoan bildutako informazio guztia kontuan hartuta, inkesta batzuk diseinatzea erabaki zen, heriotzarekiko trataeran aurreikusten zen hutsunea benetakoa ote den egiaztatu edo ezeztatzeko.

Galdetegiak diseinatu (ikus. 3. eranskina) eta betetakoan, emaitzen bilketa eta hausnarketa egin dira. Jarraian azalduko dira ondoriorik azpimarragarrienak.

Lehenik eta behin, talde bakoitzean zein nolako perfileko parte-hartzaileak dauden azalduko da. Gogoratu beharra dago senideen, hezitzaileen eta unibertsitateko irakasleen taldeetan banatu direla galdetegiak. Lehenengo bi taldeetan Hego Euskal Herriko lau probintzietako ordezkariak daude. Unibertsitateko irakasleen taldean, berriz, Gasteizko Magisteritzako eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle banak euren lankideei inkesta helarazi zieten.

Familien edo senideen kasuan esan beharra dago, gurasoez gain aitona-ama eta osaba-izebei ere helarazi zitzaizela inkesta, baina horien erantzunik ez dela jaso. Beraz, euren iritzia plazaratu dutenen artean gurasoak bakarrik daude. Halere, horien artean ere profilen aniztasuna zabala da. Ezkonduetako zein banatutako gurasoak daude, 29 eta 43 urte bitartekoak, amak eta aitak, maila guztietako ikasketadunak, lanpostu eta egoera sozio-ekonomiko ezberdinetakoak, pertsona anonimoak zein publikoki ezagunak.


Hezitzaileen kasuan, Haur Hezkuntzako umeekin harremana duten profesionalak erantzun dute inkesta, kasu guztietan, zoritxarrez, emakumeak izanik (honek ere Haur Hezkuntzako errealitatearen isla eskaintzen duelarik). Hauen artean, magisteritzako gradua amaitu berri dauden andereñoak, ordezkapenetan dabiltzanak edo urteetan ikastetxe berean daudenak topatu daitezke. Batzuek ikastetxe publikoetan lan egiten dute, beste batzuek pribatuan eta zenbait, euren ibilbidean zehar bietan aritu dira. Formakuntzari dagokinez, haur hezkuntzako lanbide heziketa gauzatutakoak daude, musikakoak, psikopedagogoak... Eta azpimarratzekoa da gehienek titulu bat baino gehiago daukatela, eta adinari dagokionean ere, 22 urteetatik 56 urtetara bitarteko emakumeek parte hartu dutela.

Unibertsitateko irakasleen profila dela eta, esan daiteke bi unibertsitatetakoak direla: Gasteizko Irakasle Eskolakoak eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoakoak.

Euskaldunen artean, lau departamentutako irakasleak aurki ditzakegu: Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika; Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika, Hezkuntzaren Teoria eta Historia; eta Didaktika eta Eskola Antolakuntza.

Katalanen artean, berriz, erantzun duten bederlatziak horrenbeste departamendu desberdinetakoak direla azpimarratu beharra dago.

Galdetegiaren emaitzei helduz, hasteko, grafiko batean islatuta daude 3 multzoetako partaideek komunean izan dituzten baieztapenak. Gogoratzekoa da 1 eta 5 bitarteko eskalaren barnean baloratu behar zituztela (1 guztiz ez-ados eta 5 guztiz ados izanik).



Familien erantzunei helduz, ikus daiteke, batz bestea, baieztapen guztien alde daudela. Dena den, badaude azpimarragarriak diren hainbat aspektu:

- Lehenengo baieztapenari dagokionez, aipatu beharrekoa da balorapen baxuenak ume oso txikiak dituztenak edo banatutako aitak izan direla.
- Umeek heriotzari buruz galdetzea, argi eta garbi, ume oso txikiak galdetu ez dutela islatzen da. Banandutako aiten kasuan ere, euren seme-alabak nagusiagoak izan arren, galdetu ez dietela diote. Lehenengo kasuan garapen-arrazoia argia den bezala, bigarrenengo kasuan, banandutako gurasoenean –bereziki aitenean– arrazoia zein den planteatzera eraman gaitzake. Sortu daitezkeen hipotesiak, oraingoan zuzenean egokitzen ez badira ere, heldu beharreko taldea direla argi geratzen da.


- Heriotzaz hitz egitearen garrantziaz denak agertu dira 4a eta 5aren artean. Beraz, zailtasunak zailtasun, seme-alabekin heriotzaz aritu behar dela argi daukate guraso guztiek.

Bigarren taldeari dagokionez, hiru azpimultzo egin daitezke: lehenengo zikloan –0-3urteko umeekin– lan egiten dutenak, bigarren zikloan lan egiten dutenak –3-6 urte haurrekin– eta gaur egun oraindik lanpostu luzerik izan ez dutenak –ordezkoak edo karrera amaitu berriak–.

Ordezko dabilzanezi, bat ere ez edo oso gutxi galdetu diete umeei heriotzagatik. Umeei ere heriotzaz hitz egiteko konfiantza giroa behar ote dutenaren hipotesia sortu daiteke datu horretatik. Izan ere, galdera horri lehenengo zikloko hezitzaileek berdintsu erantzun dute, baina horien kasuan zergatia argia da: haurrek oraindik ez dute hizkuntza menperatzen. Dena den, ez galdetze horren aurrean, hezitzaileek eurek umeei heriotzaz hitz egitea erabakitzerakoan oso egoera desberdinak antzeman daitezke. Beti ere, esan bezala, gaiaz jarduteak duen garrantzian denak ados egonik.

Bigarren zikloan lan egiten dutenen egoera guztiz bestelakoa da. Adin horietan umeei galdetzen dutenaren baieztapenarekin ados (4) edo guztiz ados (5) agertzen dira hezkuntzako profesionalak, salbuespen bakarrak musikako eta pedagogia terapeutikoko maistrak izanik. Horretatik ere, umeei horrelako gaiak tratatzeko konfiantza giroa behar dutela ondoriozta liteke.

Unibertsitateko irakasleei 3 galdera gehigarri jarri zaizkie eta horien emaitza zehatzak arretaz aztertzea aberasgarria delakoan, hurrengo taulan agertzen dira.



- 1. galdera:** Irakasgaiari umeei heriotza nola landu tratatzen duzu?
- 2. galdera:** Badakizu lankideteren batek lantzen duen?
- 3. galdera:** Beharrezkoa ikusten duzu umeei heriotza nola joratu daitekeen Irakasleen Unibertsitate Eskoletan lantzea?  
EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea  
UAB: Bartzelonako Unibertsitate Autonomia

Beraz, Gasteizko Irakasle Eskolan gehiengo garrantzitsu batek heriotzaz umeei nola landu beharrezkotzat jotzen badu ere (ezezkoa eman duenak

“hainbeste gai garrantzitsu daude...” aipatzen du), eta badakienez beste lankideren batek lantzen duela, horren esku uzten du –inkesta erantzun dutenen artean 2k baino lantzen ez dutelarik–.

Bartzelonako irakasleen artean, azpimarragarria da, historikoki estatu mailan aitzindari izan ditugun arren, euskaldunek baino gutxiago lantzen dutela euren klaseetan umeekin heriotza nola tratatu. Dena den, jorrazeko beharrari dagokionez, euskaldunen joera berdintsua erakusten dute: landu beharreko gaia izatearena, hain zuzen ere. Dena den, batek ekarpen interesgarria egiten du: “Jorratu’ baino gehiago, etorkizuneko irakasle izango direnek egoera ikasgelan agertzekotan zer egingo luketen planteatzea da garrantzitsuagoa, hau da, ikasgelan tratatzea beharrezkoa izatekotan berau tratatzeko baliabideak izan ditzaten”.

Galdera irekiei erreparatuz gero, familien kasuan antzematen da seme-alabekin heriotzaz hitz eginez gero, horretara bultzatu dituen arrazoiak gertuko pertsonaren baten heriotza –“senitartekoen heriotza”, “animalia baten edo ezagunen baten heriotza”, “udan lagun bat hil zen eta azaldu behar izan genion”– edo umeei galdetzea –“norbait heldua ikustean laster hilko den galdetu izan dit”, “pelikuletan edo marrazkietan konturatzen hasten dira gehien eta hor galdetzen dizute”– izan direla.

Eta arrazoi bera erabiltzen dute gurasoek, umeei galdetzearena, alegia, orokorrean, seme-alabei heriotzaz hitz egiteko: “beraiek galdetzen duten momentuan”, “berak galdetzen duenean, ez zait adina kontura iruditzen”, “galdetzen duenean edo gure inguruan gertatzen denean”... Adin zehatz ematera gutxi batzuk baino ez dira ausartu: “modu naturalean gaia etxean 4 urterekin beraz suposatzen dut bere adimen mailaren arabera azalpenekin gaia lantzeko arazorik ez legokeela adin honetan”, “4-5 urte” eta “10 urtetik aurrera”. Batek bakarrik, formakuntzaz psikologoa denak, “jaiotzen direnetik. Beste edozer kontatzen diegun bezala” aipatu du.

Hitz egiteko urratsa ematerakoan, azalpen desberdinak eman dituzte edo emango lituzkete. Batzuek erlijioaren bidetik jotzen dute –“hilerria deitutako toki batean lurperatzen dira”, “fededuna naizenez, fedearekin lotu izan dut”–; beste batzuek bidaia batekin lotzen dute –“oso urrun joaten dela”, “betirako joan edo betirako lo gelditzen direla”–; hirugarren talde batek bizi funtzioei heldu egiten



die –“jada ez du bizirik, ez du arnasten, ezin da ibili, ez du sentitzen”, “zoritarrez fisikoki ez dugula gurekin izateko aukera izango”–.

Badaude nola hitz egin behar duten argi ez dutela plazaratzen dutenak ere: “galdera asko egiten dute, eta askotan ez dakit zer erantzun”; “agian egia da guraso bezela orientazio bat jasotzea gai hau hobeto kudeatzeko ba eskertuko genuke”; “egia esan, oraindik ez dut nola azaldu pentsatu”; besteak beste.

Komunean agertzen den beste bi alderdi oroitzen positiboak azpimarratzearena –“oroitzenak eta amarenganako maitasuna adierazteak harro sentiarazten nau”; “argazkiak ikus ditzakegula eta berari buruzko istorioak ere kontatu ditzakegula, maite dugun pertsona hori ez ahazteko”; “beste toki batean izango da, eta egongo den toki inportantea gure bihotzetan eta pentsamenduetan izango da”– eta animalien heriotzarekin parekatzearena – “animalia bat badu lagun, hura erabilia adibide bezala”; “ziur aski panpina edo jostailuren bat galdu du, eta horrelako zeozer gertatzen dela esan nion”– dira.

Familiekin amaitzeko, esatea, “ez dut inolako arazorik gaiak hitz egiteko” eta “ez daukat batere arazorik heriotzaz hitz egiteko” aipatzen dutenak gutxi direla. Gehienek deserosotasunarekin lotzen dute: “ez zait hitz egitea asko gustatzen”, “nik samina sentitzen dut”, “oso deseroso”, “pertsonalki pena ematen dit”, “emozionatuta, triste”... eta antzeko erantzunak dira nagusi.

Laburbilduz, familiak heriotzaz hitz egiteko prest dauden arren, beraientzat ez da gai eroso ezta erraza ere. Azken hamarkadetan gizartean tabu izanda, heriotza eguneroko bizimodutik gero eta urrunago ematearen isla izan daiteke egoera hau.

Ondorioz, esku-hartze didaktikoan sendien parte-hartzea bideratu eta beraiei baliabideren bat eskaini beharko zaiela argi geratzen da; izan ere, gaiari normaltasuna eman nahi bazaio, Eskolaren eta etxearen arteko komunikazioa eta oreka ematen dela antzeman beharko da.

Hezitzaileen taldeari dagokionez, kasu guztietan, batean izan ezik, heriotza landuz gero, umeei gelara eramanda edo-eta hurbilekoren baten heriotzagatik izan da. Batek argi eta garbi onartzen du: “baina egia da bestalde, ez dudala gaia gelara zuzenean aurkeztu nahita”. Salbuespena bizitzako zikloaren barruan heriotza ere sartu zutelako ematen da: “Familiari buruzko

proiektu bat egiten ari ginela, *bizitzaren zikloa* atera zen. Hau da, jaio, hazi eta hiltzen garela”.

Beraz, umeeek gaia gelara eraman arte edo heriotza gertu bizi arte, ez zaie, normalean, heriotzaz jarduteko betarik eskaintzen hurrei. Hori dela eta, andereño askok aipatzen dute 3-4 urtetatik aurrerakoa dela heriotzaz hitz egiteko adinik aproposena, “umeeek beharra dutenean, eskatzen dutenean”. Beste talde handi batek, ordea, txiki-txikitatik eta “jaiotzatik hitz egin daitekeela normaltasunez” uste du; “bizitzaren zikloa” delako.

Azpimarragarria da, aldi berean, askok oroimenari eta hildakoekin izandako bizipenei ematen dieten balore positiboa. “Berarekin ikasitako edo jasotako guztia, bihotzean gorde dezakeela” aipatzea umeei, kasuren batean “faltan botatzen dituzun pertsonen txokoa ere bagenuen, ikasle bakoitzak argazki batzuk ekarri zituen familiakoenak, lagunena...”

Horrekin lotuta “sentimenduen txokoa sortu genuen” aipatzen du andereño batek, eta beste batzuek umeen “sentimendu guztiak errespetatu behar direla” ere argi azaltzen dute. Sentimenduen bidetik, berriz, zenbaitek helduok “umeei oreka, zintzotasuna, indarra eta trinkotasuna erakutsi behar diegu”-la aipatzen du “ahulezia, gezurra eta tristezia alde batera utziz”.

Irakasle eurek heriotzaren gaia jorratzean esaten dute ez dela gai samurra: “zaila da gai hau lantzea (...) emozioak sartzen dira tartean eta horrekin lan egitea ez da erraza”. Beste batek onartzen du “tabu bat dugula, beraz, kosta egiten zait hau naturaltasunez hartzea ere”. Kasu batzuetan hain egiten da zaila umeei heriotzaz galdetutakoan ere erantzuna saihesten dutela: “ume batek nire familiar batengatik galdetzean eta oso urrun zegoela esatean (heriotzari buruz hitz egitea ekiditeko) horri buruz galdezka hasi zelako”.

Honengatik guztiagatik ondoriozta daiteke hezkuntzako profesionalek ere laguntza behar dutela, “asko dut ikasteko oraindik” aipatzen dutelarik. Batek galdera zuzenean ere planteatzen du eta: “nik neuk gaia naturaltasunez ikusteko zailtasunak baldin baditut, nola transmitituko diet hori nire ikasleei?”

Hezitzaileen taldearekin amaitzeko, esatea beraiek ere sendiekiko harremana garrantzitsua dela diotela. Haur Hezkuntzako tutore batek kasu zehatz baten inguruan hitz egiten du, non ikasle baten bi urteko anaia txikia minbiziaz hil zen. Kasu horretan “familiarrekin harremanetan egon ginela jarraipena eginez eta familiak asko erakutsi zigula, kasu aurrera nola eraman

eta eurek nola lantzen ari ziren guri erakutsi zigutelako”. Hots, aurrean daukaguna geure gizarte osoaren tabu bat da eta familiak zein Eskola ados egonik, elkarrekin egin beharreko bidea da eta jarraian datorren proposamen didaktikoak bide horretako hasierako urrats txikietako bat izateko asmoa dauka.

Unibertsitateko irakasleei dagokienez, azpimarragarria da, pedagogian adituak izanda ere, askok heriotzaz hitz egiteko umeengandik gertu heriotzaren bat gertatu behar dela uste dutela: “inguruko pertsona maite baten heriotza”, “gertatu izana”, “gaixotasun egoera larriek, familiar baten heriotzak”... Halere, hori ez da ideia bakarra, badaude “ez dago arrazorik umeekin honetaz berba ez egiteko” diotenak, izan ere, “heriotza denok bizi-biziko dugun egoera izanik, ikasi/irakatsi behar dugu naturaltasunez”.

Heriotzaz umeekin hitz egiteko adinaren inguruan galdetzerakoan, 3 talde nagusi daude. Lehenengoak ziur ez dakiela onartzen du; bigarrenak, adin bat zehazten du (orokorrean, “haur hezkuntzako bigarren ziklotik” aurrera aipatuz; hirugarrenak, ordea, adinik ez dagoela baieztatzen du: “oso txikitatik, era egokiak topatuz gero” edo-eta “gero eta txikiagoak hobeto”. Azken hauek gaia naturaltasunez tratatzearen aldeko apustua egiten dute.

Beste alde batetik, 4 urteko ume bati heriotza zer den azaldu behar izanez gero, “desagerpen fisikoa” eta “bizitzaren zikloa azalduz, gertaera natural moduan” egingo luketela diote. Horretarako, askok liburuak erabiliko lituzketela diote. Besteren batek, ordea, “oraintxe ez nuke jakingo” aitortzen du. Katalanen artean aipatzen da 4 urterekin dagoeneko hitz eginda egon beharko lukeela, ordurako heriotzak bizi izan dituztelako hein batean edo bestean euren inguruan. Gainera, “zer den azaltzea baino, nola sentitzen diren azaltzea” dela garrantzitsuena ere esaten dute, “helduok ere ez badugu ulertzen (...) ez dut uste ezer ‘azaldu’ behar denik (...). Haur Hezkuntzako ikasgela batean gai honi buruzko elkarrizketa bat entzutean, deigarria da zenbat umek enpatizatzen duten”.

Azkeneko galderari helduz gero, alegia, heriotzaz aritzean nola sentitzen diren, joera orokorra da gertukoa ez den bitartean “ondo, ez dut arazorik hortaz hitz egiteko” edo “lasai” sentitzen direla esatea. Bik, bereziki desberdintasun argia egiten dute: “depende, abstraktua bada arazorik gabe, norbait gertua hil bada edo lagun bati norbait hil bazaio, gaizki, baina ez gaiarengatik baizik eta momentuko emozioengatik” eta “‘nirea’ bada.. apur bat estu, ‘besteena’ denean,

lasaiago". Beraz, argi geratzen da, heriotza naturaltasunez tratatu nahi den arren ("argi daukadana tabu gai bat ezin dela izan"), oraindik ere zaila egiten dela, bereziki loturik dakartzan sentimenduengatik eta tratatzeko bidean dagoen ezjakintasunagatik ("kostatu egiten zait, ez beldurragatik, baizik eta ez dakidalako nola heldu gaiari ezjakintasuna baino okerragoa den trauma bat sortu gabe").

Laburbilduz eta amaitzeko, landutako hiru eremuetako helduok heriotza tratatzearen garrantziaz ados gaudela esan daiteke, baina oraindik ere zalantza asko eta ziurtasun-falta ugari agertzen dira. Hori dela eta, argi geratzen da proposamen didaktikoak egiten eta gauzatzen hastea ezinbestekoa dela.

## PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Gure asmoa hurrengo orrialdeetan proposamen didaktikoa garatzea zen, baina luzera arazoak direla medio, eranskinetan txertatzea erabaki dugu (Ikus. eranskinak 4).

Proposamenak ahalik eta jende gehienarengan iritsi nahi du, ondorengo hiru **helburu nagusiak** dituelarik: *elkarrizketa sortzea eta heriotza bertan naturaltasunez tratatzea* batetik; bigarrenik, *heriotzaren tabua gainditzen hastea*, horretarako lehenengo urrats bat emanez; eta, hirugarrenik, *heriotza umeein ez tratatzearen joera aldatzen hasi* eta txiki-txikitatik, beste edozein gai tratatzen den naturaltasunarekin, hitz egiten hastea.

Horretarako, 8 jarduera oinarrizko aurkezten ditugu eta horiek garatzen diren bitartean aurrera eramateko beste 2 jarduera osagarri, hurrengo taulan antzeman daitekeen bezala.

OINARRIZKO J.	J. OSAGARRIAK			
Oharra idaztea				
Maleta Ibiltaria aurkeztea				
Zuhaitz genealogikoa hasi				
Zuhaitz genealogikoa amaitu				
Argizaiola	TOPAGUNEA	ABESTIA ERREPIKATZEA	IPUINA ERREPIKATZEA	MALETA IBILTARIA
Ikus-entzunezkoa				
Abestia ikastea				
Ipuina irakurtzea				
Sentimenduak antzematea				
Bizitzaren hormairudiarekin hasi				
Hormairudirako eskatutako materiala eskuratu				
Hormairudiarekin jarraitu				
Hormairudia amaitu eta erakusgai jarri				
Topagune berezia: gaia borobiltzea.				

## ONDORIOAK

Gradu Bukaerako Lan honetarako diseinatutako proposamen didaktikoa aurrera eramateko aukera izan dugu. Hona hemen esperientziari lotutako hausnarketa.

Gipuzkoako herri txiki bateko 4 urteko umeengana jo genuen, lerro bat eta bi konbinatzen dituen euskal eskola publiko batean. Berez, 20 (+1) eta 21 ikasleko gelak dira, halere, proposamena aurrera eramatean, haur asko gaixorik egonda, bi gelak elkartu genituen. Hori horrela, 24 eta 32 ume bitartean egon ziren saioetan. Helduoi dagokienez, bi tutoreak, praktiketako ikaslea eta laurok egon ginen.

Moldaketak egin behar izan ziren errealitatera egokitzeko proposamenaren malgutasuna edozein moldaketatara egiaztatzea ahalbidetu. Esperientzia-pilotu honetan lau saio eraman ziren aurrera bi aste desberdinetan. Lehenengo saioetan bina ariketa eta azkeneko saioetan jarduera bana gauzatzen; izan ere, proposamen didaktikoa aurrera eraman baino lehen, bitartean eta ondoren, festak izan ziren.

Jarduera osagarriak eta familiak barne hartzen dituztenak ezin izan ziren aurrera eraman, zoritxarrez egoerak ez zuelako betarik eskaintzen.

Lehenengo egunean, ikus-entzunezkoen jarduerarekin (3. jarduera) hasi zen esperientzia eta jarraian abestia ere (4. jarduera) abian jarri zen. Biharamunean, berriz, sentimenduak antzemateari ekin zitzaion (6. jarduera) eta ondoren *La mora* (Garabana, A. & Villán, Ó. 2005) (5. jarduera) eraman zen aurrera. Jardueren hurrenkeran aldaketaren motiboa giroa prestatzea izan zen. Gainera, egun hartan ikasle baten agurra zen, beste ikastetxe batera baitzihuan.

Tartean herriko festak izan ziren eta hurrengo astean bi egunez gerturatu ginen proposamen didaktikoari amaiera emateko. Hirugarren egunean bizitzaren hormairudia (8. jarduera) egin zuten eta, azkeneko egunean, berriz, eskela/jaiotza liburua (7. jarduera). Azkeneko hau amaierarako utzi izan zen andereñoei psikologikoki gogorrena egiten zitzaiena zelako.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, espero zitekeen bezala umeak helduok baino naturaltasun handiagoz aritzen direla heriotzaz hitz egitean. Baina, argi dago, euren interpretazioak egiten dituztela, espero ez ditugunak,

sarri. Esate baterako, ume hauek gerrarik inoiz ikusi ez dutenez, lehenengo bideoan eskopetak, gamelua eta hildakoa ikustean, Afrikara joandako ehiztarik direla eta nahi gabe batek beste bati tiro emanda hil dela ulertu zuten

**Lehenengo egunetik**, euren esperientziak kontatzen hasi ziren. Neskato bati astebete lehenago aitona hil zitzaion eta horrela kontatzen zuen: aitona gaixo gaixo zegoen eta hil egin zen, “marrazki pila bat eta lorek oparitu genion”.

Nik neuk “eta bere hilkutxan sartu zenituzten?” galdetzean buruaz baietz erantzun zuen, baina bere maistrak “G.-k deitzen zion kunita” azaldu zigun eta berak marrazkiak “medikuek” sartu zituztela zehazten du. Horretaz gain “eta zeukan krema eskutan, eske hor hotz-hoza zeon”.

Momentu horretan beste ikasle batek honako gogoeta egiten du: “gu handitan hil egingo gea ta iasta, gu handitzen garenen hil e(re)”. Horren aurrean, batek baino gehiagok hori “berandu” izango dela erantzuten diote.

Jarraian, beste mutiko batek bere historia kontatu zuen, lau egun lehenago gertatua: amona gaixo gaixo zegoela bihotzetik eta gelditu zitzaiola “urte askokin”, eta “aspaldi aspaldi Pintxo” hil omen zitzaien. Baina andereñoak galdetutakoan ea Pintxori ere bihotza gelditu ote zitzaion, buruarekin ezetz esaten zuen bitartean “zaharra zan” baieztatzen zuen, hiltzeko moduak desberdinduz.

Horretaz gain, hilerrira loreak eramaten dituztela batzuek eta etxean hildakoa gogoratzeko argazkiak jartzen direla ere aipatu zuten. Eta elkarrizketa horretan egonik, bakoitzak bere gertuko hildakoak gogoratuz (aitona eta amona zaharrak, lan-istripuan hildako osaba, istripuz hildako maskotak...), hezkuntza premia bereziko ikasle batek <sup>3</sup>“eta nik, eta nik” esaten zuen. Orduan andereñoak gogoratzen du “S.-ri ere hil zitzaion bere amona, iaz, bai egia da”.

Jarraian, beste neskato batek “nire aitatxon amatxo hil egin zan ta gero akordatzeko bota ditugu itsasoan loreak, gorriak” azaldu zuen.

“Nire birramona zerura joan zan” bota zuen geroago beste batek. “Baina ibiltzen ez, ezta? Zer gertatu zitzaion?” galdetutakoan honela erantzun zuen: “zerura joan zen eta bere aitonarekin”. Ildo beretik beste batek bigarren

---

<sup>3</sup> Nahiz eta umea txikia eta Hezkuntza Premia Berezikoa den, heriotzaz kontziente dela erakusten du.

bideoarekin aipatu zuen: “eta Jesus ere bai ba jun zen zerura eta gaizki portatzen dienak behera ta gero sua botatzen diote”.

Ondorioz, ikus dezakegu, familiek emandako azalpenek nolako indarra daukaten. Horren aurrean, gure proposamena, hori sinesmenak direla eta batzuek hori sinesten dutela azaltzearena da. Literalki ezin garela zerura igo. Beste ikasle batzuek, gainera, ez dituzte sinesmen berdinak izango eta hori argi geratu zen ikaskide batzuek “ezin da” esaten ziotenean, zerura igotzeaz aritzean.

Azpimarratzekoa da, ikasle baten bikia 3 eguneko adinarekin hil zela eta bera kontziente izan ez zen arren, iaz gurasoek azaldu ziotela. Hala eta guztiz ere, heriotzaz hitz egiterakoan ez du bere bikia aipatzen: “nire izeban aitona ta amona ba zerura joan zien baita”.

Andereñoak bere anaia 7 urte zituela kotxe batek harrapatuta hil zela ere aipatzen du. Horrelakoak oso garrantzitsuak dira, konfiantza giroa lortu nahi bada, nork bere sentimenduak konpartitzeko prest ere badagoela erakusten dielako umeei.

Deigarria da ere nolako loturak egiten dituzten umeek. Aitona hil zitzaion neskatoak “amona aitonakin bizi zan lehenau” esandakoan, ea amona orain bakarrik bizi al den galdetutakoan, “gurekin dau, bainon bere etxen”. Ez al da amonaren inguruan eraikitako sare-sozialaren isla? Horren eredu ere bada ondoko marrazkia.

Neskato honen birramona oso gaixo egon zen ospitalean eta familia guztia inguruan nola egon zen argi adierazten du.




“El día de los muertos” bideoa ere asko gustatu izan zitzairen eta nahiko abstraktua izan arren, argi ulertu zuten: “neskan amatxo (ez zen etorri)” aipatu zuen mutiko etorkin batek bere euskarari eta besteek lagundu egin zioten “eske




hil in da, oso oso gaixo” eta “azkenen imajinatu zuen bere amatxo zela”. Asko gustatu zitzairen gainera eta egunero jartzeko eskatu zuten.

Beste marrazki honetan, berriz, aurretik beste neskato batek aipatutako “begira, hiltzen bagea ya eztaukeu baterik (bateriarik)”:



Edo bestelako interpretazio batzuk ere badaudela argi utzi ziguten:



Lehenengo saioaren amaiera aldean, hildakoak gogoratzearen garrantzia azpimarratu zuten umeei (“amonak eta aittunak damatan jolasten zuten”; “gero ya ezteu jolasten ze gero ya juten da (...) zeatik ezteu ikusten”) eta

baita, abestia entzun ondoren, hilda eta lotan egotearen arteko desberdintasunaz.

**Egunari amaiera emateko**, *Estaba el Señor don Gato* abestia jarri genuen, baina hausnarketa berezirik ez zuen azaleratu.

**Bigarren egunean, topagunean** elkartu eta etxean zer kontatua zuten azaltzen hasi zen eguna. Gehienek *El día de los muertos* bideoa eta “bakarrik eskopetana ta...” kontatu zuten.

Ondoren, **sentimenduak antzematearen jarduerari** ekin zitzaion, bi jarduera egin behar zirenez, ipuina eta gero lan abstraktuagoa egiteko gogo gutxiago egongo zelakoan.

Kasu honetan ere moldaketak egin genituen. Sei talde egin genituen bakoitzak egoera bat zuelarik eta arbelean sentimenduen irudiak jarrita. Talde txikietan egoera aztertu eta erabakiak hartu behar zituzten. Ondoren, arbelera atera eta talde kolektiboaren aurrean egokitutako argazkian zein egoera eta sentimendu identifikatzen zituzten azaldu behar zuten.

Umeez berehala harritu gintuzten. Uretan dauden ama eta umetxoak “urduri zergatik umek ezin do igeri in” zeudela aipatu zuen taldeetako batek. “Eske mangitok behar dittu”. Ez hori bakarrik, amaren eta umearen arteko desberdinketa ere egin zuten: “ama dago pozik eta umea urduri”.

Ponien gainean dagoen neskatoaren eta aitaren argazkia ikusita “pozik ez dau aitatxo”, “dau urduri”, “bildurra daukelako”, “inoiz ez dalako ibili aitatxo”.

Horiek bi adibide baino ez diren arren, argi ikusten da ume batzuek argazkietako umearen sentimendua antzemateko gaitasuna izanda ere, hori unibertsaltzat jotzen zutela, eta beste batzuk, berriz, besteen sentimenduez ere konturatzen hasiak zirela ordurako. Gehiengoak, egoera berdinean sentimendu desberdinak eman daitezkeela kontziente izandakoan, nahiko erraz identifikatu zituzten.

**Lehenengo astea amaitzeko**, *La mora* (Garabana, A. & Villán, Ó. 2005) irakurri zitzaion. Errepikapena darabilen liburua izanik “inork minduko ez duela uste al du...?” galdetzean... “ba bai” erantzutea eta “masustondoan zegoela” esaldia “triste eta bakarrik” esanez amaitzeko aukera ematen zien. Horretaz gain, hipotesiak plazaratzera ere animatu genituen, nork minduko zituen galdetuz, harik eta ikasle batek gizakia “beste gizaki batek” minduko duela esatean bigarren batek “baino ya hil in da” erantzun zion arte.



Masusta berriro jaiotzen zela ikustean, umeei irribarrea atera zitzaien eta andereñoek bizitza-zikloa azaldu zuten, nola hil eta gero hezurrek ahalbidetu duten masusta berriro jaiotzea eta istorioa behin eta berriz errepikatuko dela.

Gainera, heriotza tratatzen duten eta guri sinpleak iruditu dakizkigukeen ipuinak umeei ikaragarri gustatzen zaizkiela baieztatzeko, ikasle batek esaldi borobila bota zuen, zalantza guztiak uxatu zituena: “bai politta!”.

Bigarren astean, berriz, bi tutoreak eta praktiketako ikaslea baino ez ziren egon umeekin.

**Hormairudia egin zen egunean**, 24 haur egon ziren eskolan eta hiru hura DinA3etan hormairudi bana egin zuten, talde kolektiboan hormairudi bakarra egiteko denborarik ez zegoelako.

Oso gustura egon ziren haur zein helduak. *La mora* (Garabana, A. & Villán, Ó. 2005) liburua gogoratu zuten bizitza-zikloa erreparatzeko, hau da, nola heriotza batetik bizitza sortzen den. Umeei ipuina oso ongi gogoratzen zuten eta hori hormairudietan argi ikusi zen:



Halere, talde bakarria izan bazen ere, ume batzuek euren bizipenekin ere lotu zuten bizitza-zikloa:



Azken marrazki honetan, masusta agertu arren, garrantzi handiena “nire aitona”-k hartzen du, “amona Ines”-ekin batera. Bestalde, bihotzak, izarrak eta loreak gehitu dituzte, beste batzuek ez bezala. Eta, azpimarratzekoa da, gainera, elementu gehienak etxearen barruan sartu dituztela.

**Laugarren eta gure proba pilotuaren azken egunean**, berriro ere 24 ume egon ziren gelan bi tutore eta praktiketako maistrarekin.

Arestian aipatu bezala, **eskela/jaiotza liburua** egitearen jarduera maistrei gogorra egiten zitzaien. Hala eta guztiz ere, aurretik jarduerak nola atera zirenarekin hain gustura zeudenez, eurak bakarrik aurrera eramatera animatu ziren.

Umeak zein hezitzaileak oso gustura aritu ziren maite dituztenak gogora ekarriz. Tutoreen beldurra umeren batek bizirik dagoen norbaiten “eskela” egitearena zen. Beraz, beldur horren aurrean proposamen hau egin zitzaien irakasleei: umeei azaltzea maite dugun jendea gogora ekartzea gustuko dugula. Hau da, gelara, egunkarietan agertu ohi diren eskela- eta jaioberrien-atalak erakutsi zitzaizkien, eta horrekin batera, maite dugun beste edozein pertsonari ere maite dugula esatea zein ona den.

Tutoreek horrela aurkeztu zuten eta esan beharra dago denetariko erantzunak egon zirela 24 umeen artean: jaioberriak, bizirik dauden senideak eta hildako (bir)aiton-amonak agurtu zituztenak<sup>4</sup>.

Orokorrean, eta amaitzeko, esan beharra dago beldur handiena tutoreek zeukatela urteetako lan-esperientzia duten eta umeekin heriotzaz ikasgelan hitz egindakoak izan arren, heriotzarik gertatu gabe gaia gelara eraman gabeak zirelako,.

Beraz, beraiek erronka onartutakoan, hasierako beldurrari aurre egiteko prest egonik, jarduerari heldu ahala beldurra gutxitzen joan zitzairen, umeek oso ongi eta oso parte-hartzaile erantzuten zutela ikusi zuten eta.

Eta gure aldetik, ikastetxe, haur eta familiei eskertzeaz gain, bereziki bi tutoreei eskerrak eman nahi dizkiegu euren beldurrak gureganako konfiantza bihurtuta lan hau aurrera eramatea ahalbidetu eta erraztu izateagatik.

---

<sup>4</sup> Lan horien irudirik ez da txertatzen umeen izenez gain, senideen izenak eta haurren herria agertzen direlako.

## HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Dagoeneko, behin baino gehiagotan aipatu den bezala, proposamen didaktiko honek heriotzaren tabua apurtzeko lehenengo urrats bat izan nahi du. Hori dela eta, hobekuntza- eta osatze-proposamen ugari egin daitezke.

Proposamen didaktikoaren sentimenduak antzematearen jarduerari dagokionez, planteamendu berri bat egin beharko litzateke. Izan ere, umeei luze egin zitzaien guztien azalpenak entzutea. Horregatik pentsatzen dugu talde osoarekin egin beharrean, talde txikiagoetan edo 4 egoera baino ez aurkeztuz, arinagoa eta eragin handiagokoa izan dadin.

Ikus-entzunezkoari dagokionez ere, bi bideoen artean zein jarri pentsatzen egon ginen eta, egia esan, biak jartzea oso aberasgarria izan zela deritzogu, bideo bakoitzak gai desberdinak tratatzen dituelako. Batean bizitza-ziklo oso bat ikusten da, eta bestean neskato batek galdutako ama nola oroitzen duen.

Abestiaren saioan, guk aukeratutako kanta aproposa iruditzen zaigun arren, umeen errealitatera ere egokitu beharra dago. Alegia, proposamen didaktikoaren helburua heriotza tratatzea bakarrik ez denez, abestiak beste helburu batzuk bete baditzake, askoz hobeagoa izango da ariketa. Gure kasuan, herri eta eskola euskaldunetan gaztelaniako abesti bat sartzea proposatzen dugu euskal kultura ez ezik, beste batzuk ere baloratzen direla ikusteko, eta are gehiago gure guraso edo aiton-amonek abesten zituzten abestiak. Dena den, euskara ikastetxeko hizkuntza dela uste izanez gero, Oskorri-ren *Katuen testamendua* ere erabilgarria izan daiteke. Eta, esate baterako, testamentua zer den landu daiteke ere.

Beste alde batetik, eskela-jaiotza liburuaren jarduera aurrera eramaterakoan egindako moldaketa oso aberasgarria iruditzen zaigu. Alegia, hildakoei eta jaioberriei omenaldia egiteaz gain, maite dugun edozeini omenaldia egitea. Bertsio berri honetan, jaiotzaren zentzua areagotu egiten da; izan ere, heriotzaz kontziente izanik, egunerokotasunaz gozatzearen garrantzia azpimarratzen da, maite ditugunei maite ditugula esanez, besteak beste.

Laburbilduz, ikus daitekeen bezala, esperientzia bakarrean hobekuntzarako proposamen batzuk agertu zaizkigu, eta esperientzia berri bakoitzean proposamen didaktikoa urratsez urrats hobetu daitekeela uste dugu.

Horretaz gain, berriro ere, azpimarratzea hastapenerako proposamen bat baino ez dela hau eta nahi beste aldaketa, moldaketa, egokitzapen eta hobekuntza egitea badagoela.

Azken puntu horrekin batera, norbait gelan martxan jartzen animatuz gero, bere esperientziaren berri zabaltzera ere gonbidatu nahiko genuke.

## BIBLIOGRAFIA

Álvarez Uria, E. (2014). *Galerak eta dolu-prozesuak ikastetxearen testuinguruan*. Argitaratu gabeko eskuizkribua.

Arnaiz, V. (2003). Del tabú del sexo al tabú de la muerte. *Aula de Infantil*, (12) 6-7.

Centro Clínico de los Institutos Nacionales de la Salud (2007). *Cómo hablar con los niños acerca de la muerte*. [http://www.cc.nih.gov/ccc/patient\\_education/pepubs\\_sp/talkingsp.pdf](http://www.cc.nih.gov/ccc/patient_education/pepubs_sp/talkingsp.pdf) -tik berreskuratua.

Cortina, M., De la Herrán, A. & Nolla, A. (2009). Propuestas para anticiparse al duelo. *Cuadernos de Pedagogía*, (388) 68-75.

Di Nola, A. M. (2007). *La muerte derrotada. Antropología de la muerte y del duelo*. Barcelona: Belacqua.

Documentos TV (2008). *El último viaje*. <http://www.rtve.es/alacarta/videos/documentos-tv/documentos-tv-ultimo-viaje/360268/> -tik berreskuratua.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2009). *12/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituenak*. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2009/01/0900469a.pdf> -tik berreskuratua.

Feijoo, P. & Pado, A.B. (2003). La escuela: una amiga en el duelo. *Aula de innovación educativa*, (122) 41-45.

Hernández Arias, J.R. & Saric, E. (2000). *La muerte. Una antología*. Madrid,: Valdemar.

Izagirre, P. (2003). Heriotza heziketan. *Hik Hasi 12. monografikoa*. Donostia,: Xangorin.



Manjón Ortega, C. (2004): Miedos de nuestros hijos ante la pérdida de un ser querido. *VIII Encuentro de escuelas de padres y madres de Vitoria-Gasteiz*. Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udaletxea.

Marzabal Albaina, I. (2007). Cine, ética y medicina ante el final de la vida: el poder de las metáforas. *Revista de Medicina y Cine*, (3) 23-31.

Muñoz de Ana, J. (2014): Acompañando en el duelo en niños, niñas y adolescentes. Enseñando a vivir. *Haurdanik*, (28) 3-6.

Poch Avellán, C. (2009). ¿Por qué es necesaria una pedagogía de la muerte?. *Cuadernos de Pedagogía*, (388) 52-53.

Russell, B. (1935/2000). *Elogio de la ociosidad*. Barcelona: Edhasa.

Worden, J.W. (1996). *Children and grief: When a parent dies*. New York: Guilford.

## **ERANSKINAK**

**1. ERANSKINA: Liburuen azterketa**

Lehen Hezkuntzako lehen mailako hainbat testuliburu kontsultatu dira, batzuetan aurkibidea bakarrik eta bestetan gaia jorratzen den orrialde batzuk ere agertzen direlarik.

Ikas-maila hau aukeratu da proposatuko den esku-hartze didaktikoaren ondorengo hurrengo delako eta, aldi berean, Lehen Hezkuntzako etapan testuliburuak ohikoagoak direlako. Horrela zer eta nola lantzen den Haur Hezkuntzako etapan baino argiago islatu daiteke.




“Ingurunearen Ezagupena”. EDEBÉ

Unitatea	Ingurune sozial, natural eta kulturalaren ezagupena	Erlazionatutako curriculum-arloak
<b>1. Nor naiz ni?</b>  <b>Proiektua:</b> Sei urte ditut.	<b>6</b>  <b>Kontzeptu nagusiak:</b> Identitatea, giza-gorputza, espazioaren eta denboraren araberako orientabidea.  <b>Edukin espezifikoak:</b> Señale fisikoak. Izena eta abizenak. Gorputz-atalak. Espazioaren araberako nozioak. Aldaketak.	<b>Lengoaia:</b> Irudien irakurketa. Hizten interpretazioa. Letren identifikazioa. Matuskela izen propioetan. Nolakotasunak. <b>Matematika:</b> Espazioaren araberako orientabidea. Zentzuzko zenbakiak (liehenengo zenbakiak). <b>H. Artistikoa:</b> Gorputz-irudiaren irudikapena. Kanta baten interpretazioa.
<b>2. Abenturazaleen gela</b>  <b>Proiektua:</b> Nire taldeari buruzko ikerketak.	<b>24</b>  <b>Kontzeptu nagusiak:</b> Lankidetzeta. Desberdintasunak. Espazioaren eta denboraren araberako orientabidea.  <b>Edukin espezifikoak:</b> Taldeak: kideak, izenak, iharduerak. Eskoleko espazioak: arazoak eta arauak.	<b>Lengoaia:</b> Irudien irakurketa. Hizten osaketa. Singularra eta pluralaren bereizketa intuitorria. Nolakotasunak. <b>Matematika:</b> Kontatzeko zenbakiak (Sano). Zenbakizko deskonposaketak. <b>H. Artistikoa:</b> Eskema erretimikoen imitazioa. Antzezpena.

“Inguruaren Ezagupenetik abiatuz Unitate Didaktiko Orokorrak”.

**IKUSMIRA**



GAIA	HELBURUAK	GERTAEAK, KONTZEPTUAK ETA PRINTZIPPORAK
1. Gaia: Ikasturtearen hasiera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola ikasleari gatausunak garatzen lagunduko dion inguru finkatzea.</li> <li>- Ikasleek eskolako lana bere eginkizak bezala hartzea, horretarako iniziatiba eta interesa bultzatzea.</li> <li>- Taldean integrazioaren ikaslea, desberdintasunak onartuz.</li> <li>- Eskola eta bertako lan-tresnak ezagutzea, funtzioak jabetzea eta zainetzea arduratzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolako partaideak: funtzionarioak.</li> <li>- Gelaren ezagutza: nolako den, lan-tresnak.</li> <li>- Denboraren inapuna: ordutegia.</li> <li>- Jolasak.</li> </ul>
2. Gaia: Txotxongiloa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren egoitza: gorputzko atalak eta zentzumenak ezagutzea, eta horietako bakoitzak duren funtzioak jabetzea.</li> <li>- Mugimenduen koordinazioa eta independentzia lortzen hastea.</li> <li>- Gorputza zaintzearen garrantziaz jabetzea eta ardurak betetzearen ikaslea.</li> <li>- Nazio espazialak lortzen eta automatizatzen hastea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giza gorputza: atalak eta zentzumenak.</li> <li>- Simetria, larreditura.</li> <li>- Orientazio espaziala: ezker-ekker, gaina-azpia, tartea, burki-urrun.</li> <li>- Gorputza zaindu: ardurak.</li> </ul>

**Aurkibidea**

**1. gaia. Ikasturtearen hasiera** .....

Gure gela ezagutzen .....

Eskolan egiten duguna .....

Nor gaude eskolan .....

Jolasak .....

**2. gaia. Txotxongiloa** .....

Gorputza ezagutzen .....

Txotxongiloa egiten .....

Gure zentzumenak .....


Gorputza zaintzen dut .....

Arduratzen naiz .....

Simetria .....

PROZEDURAK	JARRERA, BALORE ETA ARUAUAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde lanetan parte hartzea gela antolatzen.</li> <li>- Materialak beharretan eta ondoan erabiltzea.</li> <li>- Serioz eta erlaxatuz ariketak egitea.</li> <li>- Denboraz ohartzeko ariketak egitea.</li> <li>- Begi-motritzitatearen koordinazioarako, balioekin ariketak egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolaren beharretan baloratzea.</li> <li>- Ardurak parte hartzea lanak egitekoan.</li> <li>- Elkarrekin arinak bererako beharrez jabetzea.</li> <li>- Eskolako lan taldea baloratzea, bertan integrazioa.</li> <li>- Materialak arduratzea.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputz-erakimaren esploraketa, murrakikiak behatzea.</li> <li>- Txotxongiloaren erakimera, material eta tresna desberdinak erabiltzea.</li> <li>- Zentzumenen erabilera.</li> <li>- Material desberdinen manipulazioa: eguzki, papera, olibalak, ...</li> <li>- Arretza ariketak beharretan behar.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputzaren zaintea eta garbitasun ohituraren sembolizatzea, eta berazko baloratzea.</li> <li>- Bakoitzaren ardurak jabetzea.</li> <li>- Norberaren autonomia baloratzea.</li> </ul>

**“Ingurunea 1”. Aurkitzen Proiektua. LUIS PEREDA**



Aurkibidea

1go Gaia . Ikasturtearen hasiera  
 Gelako tohoak ezagutzen  
 Eskolan egiten duguna  
 Nortzuk gauden eskolan?  
 Musikako tohoan  
 Jolasak

2. Gaia . Ertxongiloa  
 Gorputza ezagutzen  
 Ertxongiloa egiten  
 Gure zentzuak  
 Gorputza zaintzen dit  
 Arduratzen naiz  
 Simetria

5. Gaia . Elenaren urtebetetzeko merienda  
 Janariekin esperimentatzen  
 Janariak  
 Elikatzen  
 Airearekin esperimentatzen

6. Gaia . Ander jaio da  
 Nire familia  
 Lehengusuei herria erakusten  
 Kalean kontuz ibili behar da

“Ingurunea”. EREIN

**► GURE GORPUTZA**  
 Gaiari buruz jakin nahi dituzun gauza batzuk, agian, sendagileak Fermini emandako liburuxkan aurkituko dituzu.

**GURE GORPUTZA MAKINA PERFECTUA DA.**  
**ZAIN DEZAGUNI!**  
**OSO LIBURU POLITA DA. IKUS EZAZU!**

**AURKIBIDEA**


• Zen dira gorputzaren atal nagusiak?	• Gure gorputza nolakoa da barnean?
• Gorputza gaitiak berdinak al gara?	• Nola elikatu behar dugun osasuntsu egoteko?
	• Nola zaindu behar dugun gorputza?

**ELIKATU? JAN? HARA? ZERGATIK EZ DUGU MERIENDA BAT ANTOLATZEN?**

**NIRI ERREZETA LIBURU BAT EDUKITZEA GUSTATUKO LITZAIKAKE!**


txanela

“Material Globalizatua”. TXANELA. IKASTOLEN ELKARTEA




**Aurkibidea**

1. Nire gorputz maitagarria . . . . .
2. Nire bost zentzumenak . . . . .
3. Nire adiskideak . . . . .
4. Nire familia eta nire etxea . . . . .
5. Bai jai alaiak! . . . . .



“Inguruaren Ezaguera”. ANAYA HARITZA



UNITATEAK	INFORMAZIOA ETA JARDUERAK			IRAKURRI ETA IKASI	NIRE GAITASUNAK HOBETZEN DITUT
1 Nire gorputza 4	• Gorputza-atalak	• Gorputza mugitzen dugu		• Sendagilearen aholkuak	• Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako: Badakit nolakoak diren nire eskuak.
2 Gure ingurunearen berri dugu 14	• Bost zentzumenak	• Ikusi eta ukitu egiten dugu.	• Entzun, usaindu eta zaporea hartzen dugu.	• Berdinak gara, desberdinak gara	• Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako: Nire zentzumenak erabiltzen.
3 Hazteko elikagaiak 26	• Elikagai motak	• Elikagaien jatorria.	• Ondo elikatzen gara.	• Jateko zenbait modu	• Norberaren autonomiarakoa eta ekimenerakoa: Fruta-mazedonia prestatzen.
4 Nolako etxea duzu? 38	• Zenbait etxe mota.	• Etxeak eraikitzen ditugu.	• Etxea barritik.	• Gurgildun etxea	• Informazioa tratatzekoa eta teknologia digitala erabiltzekoa: Jolasteko loki bat aukeratzen.
5 Familian bizi gara 50	• Familia bat dugu.	• Familiako bizitza.		• Gabon desberdinak	• Norberaren autonomiarakoa eta ekimenerakoa: Jaiotza prestatzen.

**“Ingurunearen Ezaguera 1”. JAKINTZAREN BIDEAK PROIEKTUA. ZUBIA SANTILLANA**



**Aurkibidea**

1. Eskola
2. Gorputza azterten
3. Gorputza eta zentzumenak
4. Etxera gonbidatzen zaitugu
5. Kalean pasieran

Proiektua: Zentzumenak  
Gorputz artikulatu bat egiten

**FAMILIA-ZUHATZA**

Nire gurasoen aita eta ama nire aitona-amonak dira.  
Nire neba eta ni haien bilobak gara.  
Guztiak familia osatzen dugu.

1. Birpasatu, eta osatu Lierninen familia-zuhaitza.

Mona eta zure familia-zuhaitza osri batean.

**BIESTE FAMILIA BATZUK**

4. Idazteko familia bakoitzari dagokion zenbakia.

Ibon gurasoekin eta aitona-amonekin bizi da  
Iker amarekin eta anarekin bizi da  
Paulo aitarekin bizi da  
Ama gurasoekin, neba-arrebekin eta aitona-amonarekin bizi da

**“Ingurunearen Ezaguera 1”. PIXEL. GILTZA**

## **2. ERANSKINA: Kronograma**

### **Iraila:**

- Izenematea: GBLaren gaia eta zuzendaria aldatzea.

### **Urria:**

- Egokitutako zuzendariarekin lehenengo bilerak.
- Gaia adostea. Nondik norakoak zehaztu.
- Dokumentazio-fasea: bibliografia biltzen hasi.

### **Azaroa:**

- Marko teorikoa osatu.
- Zuzendariarekin zuzenketak bideratu eta hurrengo urratsak zehaztu.

### **Abendua:**

- Galdetegiak diseinatu, bete eta ondorioak atera.
- Zuzendariak egindako zuzenketa eta proposamenak kontutan hartuta testua osatu.
- Zuzendariarekin hurrengo urratsak zehaztu.
- Esku-hartze didaktikorako informazioa biltzen hasi.

### **Urtarrila:**

- Atal teorikoaren azken zuzenketak egin, zuzendariak egindako proposamenei jarraituz.
- Esku-hartze didaktikoa diseinatu eta martxan jartzeko aukera bilatu.
- Esku-hartzea praktikara eraman.
- Esku-hartzearen transkripzioak egin.

### **Otsaila:**

- Esku-hartzearen ondorioak atera eta hobekuntza-proposamenak egin.
- Lana idatziari forma eman eta zuzendariaren oniritzia jasotakoan entregatu.
- Tribunalaren aurreko aurkezpena.



### **3. ERANSKINA: Inkestak**

#### **AURKEZPENA**

Heriotza ezinbestekoa, unibertsala, ekidinezina eta, bereziki, naturala da. Hala ere, gure gizartearen tabu handienetarikoa bat da eta, zer esanik ez, ikastetxeetako Haur Hezkuntzako umeekin.

Horregatik guztiagatik, luzatzen dizkizut ondorengo galderak. Nire asmoa heriotza Haur Hezkuntzan nola landu daitekeen proposatzea da. Horretarako, senide, hezitzaile eta unibertsitateko irakasleekin jartzen ari naiz harremanetan. Erantzunak anonimoak izango dira eta ez dira inon argitaratuko. Argi izan, gainera, ez dagoela erantzun zuzen edo okerrik, gaur egungo errealitatea den bezalakoa islatzea baita nire helburua.

Mila esker zure parte hartzeagatik.

Naroa Martinez Suarez

**FAMILIENTZAKO INKESTA**

Jaioterria:			
Bizitokia:			
Helduaren adina eta sexua:			
Umearekiko harremana:			
Ume(ar)en adina eta sexua:			
Ikasketa maila:	Derrigorrezkoa	Lanbide Hezkuntza	Unibertsitatea
Hezkuntzarekin harreman zuzenik?	Ez	Bai	Nolakoa: _____
Heriotzarekin lan-harremanik?	Ez	Bai	Nolakoa: _____

**Jarraian, egiten diren baieztapenen alde edo kontra zauden adierazi. (1: Guztiz kontra; eta 5: guztiz ados; eskala erabiliz)**

	1	2	3	4	5
Ume(ar)ekin heriotzaren inguruan hitz egin dut.					
Umea/ek heriotzari buruz galdetu didate.					
Garrantzitsua da umekin heriotzaz hitz egitea.					

**Orain, ondorengo galderei zure hitzekin erantzutea eskatzen dizut.**

- Ume(ar)ekin heriotzaz hitz egin baduzu, zein izan da horretara bultzatu zaituen arrazoi edo egoera?
- Zein adinekin uste duzu hasi behar dela umekin heriotzaz hitz egiten?
- Nola azalduko zenioke 4 urteko ume bati zer den heriotza edo hiltzea?
- Nola sentitzen zara zu zeu heriotzaz hitz egin behar duzunean?

**HEZITZAILEENTZAKO INKESTA**

Jaioterra:					
Bizitokia:					
Helduaren adina eta sexua:					
Lanpostua:	Tutorea	PT	Aholkulari	Hezitzailea	Bestelakoa: _____
Umeen adina:					

**Jarraian, egiten diren baieztapenen alde edo kontra zauden adierazi. (1: Guztiz kontra; eta 5: guztiz ados; eskala erabiliz)**

	1	2	3	4	5
Umekin heriotzaren inguruan hitz egin dut.					
Umek heriotzari buruz galdetu didate.					
Garrantzitsua da umekin heriotzaz hitz egitea.					

**Orain, ondorengo galderei zure hitzekin erantzutea eskatzen dizut.**

- Umekin heriotzaz hitz egin baduzu, zein izan da horretara bultzatu zaituen arrazoi edo egoera?
- Zein adinekin uste duzu hasi behar dela umekin heriotzaz hitz egiten?
- Nola azalduko zenioke 4 urteko ume bati zer den heriotza edo hiltzea?
- Nola sentitzen zara zu zeu heriotzaz hitz egin behar duzunean?

**UNIBERTSITATEKO IRAKASLEENTZAKO INKESTA**

Jaioterria:
Bizitokia:
Helduaren adina eta sexua:
Lanpostua
Unibertsitatea: _____
Departamentua: _____

**Orain, ondorengo galderei zure hitzekin erantzutea eskatzen dizut.**

- Zure irakasgaiari umeei heriotza nola tratatu daitekeen jorratzen duzu?
- Ba al dakizu zure lankideteren batek jorratzen duen?
- Beharrezkoa ikusten al duzu umeei heriotza nola jorratu daitekeen Irakaslearen Unibertsitate Eskoletan lantzea?
- Zein arrazoik bultzatzen dezake umeei heriotzaz hitz egitea?
- Zein adinekin uste duzu hasi behar dela umeei heriotzaz hitz egiten?
- Nola azalduko zenioke 4 urteko ume bati zer den heriotza edo hiltzea?
- Nola sentitzen zara zu zeu heriotzaz hitz egin behar duzunean?

**Jarraian, egiten diren baieztapenen alde edo kontra zauden adierazi. (1: Guztiz kontra; eta 5: guztiz ados; eskala erabiliz)**

	1	2	3	4	5
Umeei heriotzaren inguruan hitz egin dut.					
Umeei heriotzari buruz galdetu didate.					
Garrantzitsua da umeei heriotzaz hitz egitea.					

## **PRESENTACIÓN**

La muerte es imprescindible, universal, inevitable y, sobre todo, natura. Aun así, es uno de los mayores tabúes de nuestra sociedad y, qué decir, en los colegios y escuelas con los/las niños/niñas de Educación Infantil.

Por eso, te hago llegar estas preguntas. Mi objetivo es proponer cómo se puede trabajar la muerte en Educación Infantil. Para ello, me estoy poniendo en contacto con familiares, educadores/educadoras y profesores y profesoras de universidad.

Las respuestas serán anónimas y no serán publicadas. Ten en cuenta, además, que no hay respuestas correctas o incorrectas. Sólo pretendo reflejar la realidad actual.

Muchas gracias por tu participación.

Naroa Martinez Suarez

**ENCUESTA PARA FAMILIARES**

Lugar de nacimiento:			
Lugar de residencia:			
Edad y sexo:			
Relación con respecto al niño/niña:			
Edad y sexo de los/las niños/niñas:			
Nivel de estudios:	Obligatorio	Formación Profesional	Universidad
¿Relación directa con la enseñanza?	No	Si	¿Cuál?: _____
¿Relación con la muerte?	No	Si	¿Cuál?: _____

**A continuación, debes reflejar tu nivel de conformidad con las afirmaciones que se presentan. (Utiliza la escala; 1: totalmente en contra; y 5: totalmente de acuerdo)**

	1	2	3	4	5
Hablo con los/las niños/niñas sobre la muerte.					
Los/las niños/niñas me han preguntado sobre la muerte.					
Es importante hablar sobre la muerte con los/las niños/niñas.					

**Ahora, te pido que contestes a estas preguntas con tus palabras.**

- Si has hablado con los/las niños/niñas de la muerte, ¿cuál ha sido la situación o la razón que te ha llevado a ello?
  
- ¿Con qué edad crees que hay que empezar a hablarles a los/las niños/niñas de la muerte?
  
- ¿Cómo le explicarías qué es la muerte o morir a un/una niño/niña de 4 años?

- ¿Cómo te sientes tú al tener que hablar sobre la muerte?

### ENCUESTA PARA EDUCADORES/EDUCADORAS

Lugar de nacimiento:
Lugar de residencia:
Edad y sexo:
Puesto de trabajo: Tutor/a PT Orientador/a Educador/a Otro:_____
Edad de los/las niños/niñas:

**A continuación, debes reflejar tu nivel de conformidad con las afirmaciones que se presentan. (Utiliza la escala; 1: totalmente en contra; y 5: totalmente de acuerdo)**

	1	2	3	4	5
Hablo con los/las niños/niñas sobre la muerte.					
Los/las niños/niñas me han preguntado sobre la muerte.					
Es importante hablar sobre la muerte con los/las niños/niñas.					

**Ahora, te pido que contestes a estas preguntas con tus palabras.**

- Si has hablado con los/las niños/niñas de la muerte, ¿cuál ha sido la situación o la razón que te ha llevado a ello?
- ¿Con qué edad crees que hay que empezar a hablarles a los/las niños/niñas de la muerte?
- ¿Cómo le explicarías qué es la muerte o morir a un/una niño/niña de 4 años?
- ¿Cómo te sientes tú al tener que hablar sobre la muerte?

**ENCUESTA PARA PROFESORES/PROFESORAS DE UNIVERSIDAD**

Lugar de nacimiento:

Lugar de residencia:

Edad y sexo:

Puesto de trabajo

Universidad: \_\_\_\_\_

Departamento: \_\_\_\_\_

**Ahora, te pido que contestes a estas preguntas con tus palabras.**

- ¿Trabajas en tu asignatura cómo se puede tratar la muerte con los/las niños/niñas?
- ¿Sabes si algún/a compañero/compañera lo trabaja?
- ¿Crees necesario que en las Escuelas Universitarias de Magisterio se trabaje cómo tratar la muerte con los/las niños/niñas?
- ¿Qué razón puede llevar a hablar de la muerte con los/las niños/niñas?
- ¿Con qué edad crees que hay que empezar a hablarles a los/las niños/niñas de la muerte?

¿Cómo le explicarías qué es la muerte o morir a un/una niño/niña de 4 años?

- ¿Cómo te sientes tú al tener que hablar sobre la muerte?

**A continuación, debes reflejar tu nivel de conformidad con las afirmaciones que se presentan. (Utiliza la escala; 1: totalmente en contra; y 5: totalmente de acuerdo)**

	1	2	3	4	5
Hablo con los/las niños/niñas sobre la muerte.					
Los/las niños/niñas me han preguntado sobre la muerte.					
Es importante hablar sobre la muerte con los/las niños/niñas.					



**4. ERANSKINA: Proposamen didaktikoa**

# **BETI BERDINA AL DA GURE FAMILIA?**

Haur Hezkuntza

4 eta 5 urteko geletarako materiala

Martinez Suarez, Naroa

**AURKIBIDEA**

SARRERA .....	67
GAITASUNAK .....	69
EDUKIAK .....	70
METODOLOGIA .....	71
<i>ANTOLAKETA OROKORRA</i> .....	71
<i>KRONOLOGIA</i> .....	75
ZEREGINEN DESKRIBAPENA .....	76
<i>JARDUERA OSAGARRIAK</i> .....	76
<i>JARDUERA OINARRIZKOAK</i> .....	81
GAITASUNEN EBALUAZIOA .....	96
BIBLIOGRAFIA .....	100
ERANSKINAK .....	102

## 1. Sarrera

Hurrengo orrialdeetan heriotzaren inguruko proposamen didaktiko bat aurkezten dugun arren, honek, berez, ez du unitate didaktiko oso bat hartuko ez diogulako protagonismo handiegia eman nahi, naturaltasuna bilatzen baitugu. Hau da, gure proposamen honek *familia eredu desberdinak* eta *bizitza-zikloa* uztartzen ditu, heriotza ere barne hartuz, gai horien parte baita.

Proposamen didaktiko hau 4-5 urteko geletan aurrera eramateko diseinatuta badago ere, beste adin batzuetara ere moldatu daiteke.

Heriotza lantzea berrikuntza nahikoa delakoan, jardueretan ez da berebiziko orijinaltasuna bilatu, baizik eta elkarrizketarako bidea izatea, hori baita proposamenaren hiru helburuetako bat. Umeen zein helduon aldetik naturaltasunez eta konfiantzaz jardutea bilatzen dute plazaratzen diren ariketek, familia ere Eskolara gerturatuz eta baita alderantziz ere.

Proposamen didaktiko hau hilabete askoren ikerketa-lanaren emaitza da eta aldi berean heriotzaren gaira hurbilpen xume bat, helburuetako bigarrena ondorengoa izanik: heriotzaren tabua Eskolan apurtzen hastea, beste edozein gai bat bezala jorratzeari ekitea –haurren, hezitzaileen zein familien aldetik–, eta ez salbuespen gisa.

Gauzak horrela, argi utzi nahi da heriotza Eskola curriculumean sartzeko lehenengo urrats izatea baino bilatzen ez duela; hori hirugarren helburua izanik. Alegia, hasierako saiakera bat da hau, nolabaiteko esperimantazioa. Ondorioz, aurrera eramandakoan edozein aldaketa behar duela sumatzekotan, beldurrik gabe buelta emateari helduko diogu. Hau da, etengabeko moldaketak eginez hobekuntza-prozesu batean egongo den esku-hartzea dela argi daukagu.

Beste alde batetik, jarraipena behar duen proposamena dela azpimarratu behar da; aurretik aipatu bezala, hasierako pausu bat baino ez delako, bai helduontzat baita haurrentzat ere. Hori dela eta, aurkezten diren jarduerak bakarrik aurrera eramanda, ez da heriotzarekiko tabua hautsiko eta, ondorioz, ez da naturaltasunez biziko. Hots, ikasleek beste ikasturte batzuetan ere heriotzaz hitz egin beharko lukete eta hezitzaileek ikastalde guztiekin tratatu beharko lukete.

Arestian esan bezala, proposamen honek ezinbestekotzat jotzen den gai bat, heriotzarena, dagoeneko Eskolan ohikoak diren gaiekin uztartu egiten du.

Horregatik guztiagatik, eskuratzen duen edonork bere ikasleekin aurrera eramatera animatzen dugu, denon elkarlanaz baino ez baita aurrera egiten.

Laburbilduz, hurrengo orrialdeetan aurkezten den proposamenak ahalik eta jende gehienarenganaino iritsi nahi du, ondorengo hiru helburu nagusiak dituelarik: elkarrizketa sortzea eta heriotza bertan naturaltasunez tratatzea ,batetik; bigarrenik, heriotzaren tabua gainditzeko hastea, horretarako lehenengo urrats bat emanez; eta, hirugarrenik, heriotza umeei ez tratatzearen joera aldatzen hasi eta, txiki-txikitatik, beste edozein gai jorratzen den naturaltasunarekin hitz egiten hastea.

2. GAITASUNAK	
1	Bizitzaren zikloa ezagutzea; jaio, hazi eta hiltzen garela ulertuz, <b>arduraz bizitzen ikasteko</b> .
2	Dagoeneko gure artean ez daudenak oroitzuz eta norbere bizitzaren azken urratsa dela ulertuz, heriotzaz kontziente izatea eta hitz egitea gaia naturaltasunez tratatzeko eta etorkizuneko heriotzen aurrean baliabide batzuk garatuak izateko. <i>[Ekiten ikastea]</i>
3	Hildakoen eta heriotzaren inguruan dauden ospakizun eta ohitura desberdinak ikustea irakasleen, gurasoen eta euren arteko azalpenen bitartez, heriotzaren aurrean ematen diren egoerak ulertzen hasteko.
4	Euren eta inguruko sentimenduak identifikatzea errespetuzko, konfiantzazko eta laguntzazko giro batean pertsona gisa garatzen ikasi eta auto-estima egokiak lortzeko. <i>[Pertsona gisa garatzen ikastea]</i>
5	Zuhaitz genealogikoak eginez familia eredu desberdinak daudela ulertzea eta errespetatzea, <b>elkarrekin bizitzen ikasteko</b> .
6	Hormairudien bidez bizitza-zikloa azaltzen ikastea (jaiotza, haztea eta hiltzea) <b>komunikatzeko</b> teknika desberdinak ezagutu eta euren komunikazioa errazteko.

*\*Hizki belztuan eta kortxeteen artean daudenak OCDko gaitasun orokorrak dira.*

3. EDUKIAK		
Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
<p><b>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</b></p> <p>1. <u>Norberaren eta inguruko sentimendu, emozio, bizipen, lehentasun eta interesekiko jankin mina</u></p> <p>2. Inguruko nortasunarekiko eta ezaugarriekiko errespetua</p> <p>3. Bere burua ezagutzeko eta emozioak adierazteko interesa</p> <p><b>Ingurunearen ezaguera</b></p> <p>4. <u>Gertuko gizarte-taldeak ezagutzera hurbiltzeko prestutasuna, konfiantza-, errespetu- eta estimazio-jarreraz</u></p> <p>5. Inguruneok heriotzarekiko dituzten ohiturak ezagutzeko jakin mina</p> <p>6. Ikaskideen lanarekiko, sentimenduekiko eta iritziekiko errespetua</p> <p><b>Komunikazioa eta adierazpena</b></p> <p>7. Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko prestutasuna</p> <p>8. Inguruko azalpenak entzuteko interesa</p>	<p><b>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</b></p> <p>1. <u>Norberaren aldaketa fisikoei eta denboraren joatearekin duten loturari hautematea</u></p> <p><b>Ingurunearen ezaguera</b></p> <p>2. <u>Hurbileko hainbat gizarte-talde eta haien heriotzarekiko zenbait ekoizpen kultural eta balioen identifikazioa</u></p> <p>3. <u>Inguruan dauden gizarte- eta kultura-jardueretan parte-hartzea</u></p> <p><b>Komunikazioa eta adierazpena</b></p> <p>4. Bizi-funtzioen azalpena</p> <p>5. Hildakoen agurrerako objektuak sortzea</p> <p>6. Zuhaitz-geneaologikoaren ekoizpena</p> <p>7. Azalpen argiak emateko saiakera</p>	<p><b>Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala</b></p> <p>1. <u>Gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak</u></p> <p>2. Norberaren familiaren ezaugarriak</p> <p><b>Ingurunearen ezaguera</b></p> <p>3. <u>Izaki bizidunen bizi-funtzioak</u></p> <p>4. <u>Izaki bizidunen bizitza-zikloa: jaiotzatik heriotzarainokoa</u></p> <p>5. <u>Norberaren kultura-nortasuneko heriotzarekiko zenbait ezaugarri</u></p> <p>6. Ikaskideen eta inguruko familia eredu desberdinak</p> <p>7. Heriotzaren kontzeptua</p> <p><b>Komunikazioa eta adierazpena</b></p> <p>8. Komunikatzeko bide eta baliabide desberdinak</p>

\*Azpimarratuta daudenak OCDko helburuak dira, "Heriotzak Curriculumean daukan presentzia" atalean landutakoak.

4. METODOLOGIA: ANTOLAKETA OROKORRA						
GAITASUN ZKIAK.	ZEREGINAK	TEKNIKAK	MATERIALAK TRESNAK EUSKARRIAK	GELA ESPAZIO MOTA	DENBORA	TALDE MOTA
1, 2, 4	Topaguneko tarteari garrantzi berezia eskaintzea (Osagarria)	Elkarrizketa	Umeek ekarriko balute	Topagune edo korroa	Egunero 30'	Talde kolektiboa
2, 4	Maleta Ibiltaria (Osagarria)	Elkarrizketa Ikus-entzunezkoak ikusi Liburuak irakurri	Maleta Ibiltaria (Ikus. eranskinak 1)	Ikasle bakoitzaren etxea.	Hiru-hilabete bat gai bakoitzeko	Haur bakoitzaren familia
1, 2, 5	Zuhaitz genealogikoa (Motibatzailea / Aurrezagupenak)	Zuhaitz-genealogikoa	Kartulina Errotulkiak Argazkiak	Ikasgela	<b>1. saioa:</b> Azalpena 20' Zuhaitza egitea 30' Topagunea 15' <b>2. saioa:</b> Zuhaitza amaitu 20' Aurkezpena 20'	<b>Azalpena:</b> Talde Kolektiboa <b>Gauzatzea:</b> Banaka <b>Baterajartzea:</b> Talde txikietan Talde handian

4. METODOLOGIA: ANTOLAKETA OROKORRA						
GAITASUN ZKIAK.	ZEREGINAK	TEKNIKAK	MATERIALAK TRESNAK EUSKARRIAK	GELA ESPAZIO MOTA	DENBORA	TALDE MOTA
3, 4	Argizaiola egitea (Motibatzailea)	Elkarrizketa Idazketa Margotzea Zulatzea Itsastea	Kartoi lodia Puntzoia Errotulkiak Margotzeko argizariak Gometxak Artilea Kandela txikiak Kola txuria	Ikasgela	Arratsalde oso bat 1h 30'/2h	<b>Talde txikian:</b> Oharra elkar lagunduz idaztea. <b>Talde handia:</b> azalpena emateko eta ohar-eredua egiteko. <b>Binaka:</b> argizaiola egiteko.
1, 3	Ikus-entzunezkoa	Ikustea Elkarrizketa	- Attraction perform their stunning shadow - Día de los muertos (Ikus.: Bibliografia, linkak)	Ikasgela	<b>Bideoak)ikusi:</b> 15' eta 10' <b>Baterajartzea:</b> 15'+15'	Talde Kolektiboa



4. METODOLOGIA: ANTOLAKETA OROKORRA						
GAITASUN ZKIAK.	ZEREGINAK	TEKNIKAK	MATERIALAK, TRESNAK, EUSKARRIAK	GELA/ESPAZIO MOTA	DENBORA	TALDE MOTA
1, 4	Abestia: Estaba el Señor don Gato	Entzutea	Abestia: CD-an edo Youtuben. (Ikus. eranskinak 3)	Ikasgela	Abestia entzun 10'-15' Elkarrizketa 15' Marraskia 15' Egunero 5'-10'	Talde Kolektiboa
1	Ipuina: La mora	Narrazioa Entzutea	“La mora” liburua. (Ikus. eranskinak 4)	Ikasgela	Ipuina kontatu 15'-20' Elkarrizketa 20'	Talde Kolektiboa
4	Sentimenduak antzematea	Elkarrizketa Eztabaida Banakako azalpena	Gertaera eta sentimenduen kartulinak (Ikus. eranskinak 6)	Topagunea	Jarduera aurkeztu 5'-10' Lotura egitea 10'	Talde Kolektiboa

4. METODOLOGIA: ANTOLAKETA OROKORRA						
GAITASUN ZKIAK.	ZEREGINAK	TEKNIKAK	MATERIALAK, TRESNAK, EUSKARRIAK	GELA/ESPAZIO MOTA	DENBORA	TALDE MOTA
2, 3	Eskela/jaiotza liburua (Sendotzeko)	Idazketa Marrazketa	Txantiloia (Ikus. eranskinak 7) Arkatza Borragoma	Ikasgelan bakoitzarentzako mahai eta aulki banarekin.	<b>Jarduera aurkeztea</b> 15'-20' <b>Txantiloia bete</b> 20'-25'	<b>Azalpena:</b> Taldea Kolektiboa <b>Txantiloia betetzea:</b> Banaka (talde txikitan kokatuta)
1, 6	Bizitzaren hormairudia (Ebaluaziorako)	Marrazketa Collage Itsastea Hurrek proposatutakoa	Paper rolloa Margoak Errotulkiak Barrako kola Arkatzak Borragomak Zeloa eta "Glut"-a	Ikasgela eta hormairudiak erakusgai jartzeko umeei proposatutakoa.	30'-ko 3 saio	Talde txikiak

4. METODOLOGIA: KRONOLGIA		
HURRENKERA	JARDUERA	J. OSAGARRIAK
Hasi baino astebete lehenago	Oharra idaztea Maleta ibiltaria aurkeztea	
1. saioa	Zuhaitz genealogikoa hasi	
2. saioa: Hurrengo egunean	Zuhaitz genealogikoa amaitu	
3. saioa: Arratsalde oso bat	Argizaiola	
4. saioa	Ikus-entzunezkoa	
5. saioa	Abestia ikastea	
6. saioa	Ipuina irakurtzea	
7. saioa	Sentimenduak antzematea	
8. saioa	Bizitzaren hormairudiarekin hasi	
Klasetik kanpo	Hormairudirako eskatutako materiala eskuratu	
9. saioa: Hurrengo egunean	Hormairudiarekin jarraitu	
10. saioa: Hurrengo egunean	Hormairudia amaitu eta erakusgai jarri	
11. saioa: Hurrengo egunean	Topagune berezia: gaia borobiltzea.	

TOPAGUNEA

ABESTIA ERREPIKATZEA

IPUINA ERREPIKATZEA

MALETA IBILTARIA

## 5. METODOLOGIA: ZEREGINEN PLANGINTZA

### JARDUERA OSAGARRIAK

Jarduera osagarri hauek heriotza Eskola Curriculumean sartzen hasi nahi delako proposatzen dira. Horregatik, tabua den edozein gaiarekin egiteko modukoak direla uste dugu.

Proposamen didaktiko honen hiru helburu nagusietako bat elkarrizketa sustatu eta horri tokia egitea denez, jarduerak aurrera eramaten ditugun heinean garrantzia berezia emango zaio topaguneari.

Argi utzi beharra dago ez dela proposamenaren lehenengo jarduera, baizik eta gaia hasi eta ondorenean egunero bermatua egongo den tarte.

Bestalde, tabua gainditzea ere helburu garrantzitsua izanik, etxe eta familietara iristea ezinbestekotzat jotzen dugu. Horregatik, proposamen didaktiko hau aurrera eramatearekin batera etxeetara eraman ahal izango den “Maleta Ibiltaria” aurkezten dugu.

Dagokion atalean ere azalduko den arren, “Maleta Ibiltaria”-ko gaiak ikasturtean zehar aldatuko direla argi adierazi nahiko genuke. Gure gomendioa gai desberdinen inguruko materialak hiruhilabetero aldatzearena da, familia guztiei horiek eskuratzeko aukera bermatzeko.

<b>1. ZEREGIN OSAGARRIA: TOPAGUNEKO TARTEARI GARRANTZI BEREZIA ESKAINTZEA</b>			
<b>Deskribapena</b>			
<p>Gaiari naturaltasuna eman nahi zaion arren, eta bereziki inplikaturiko helduek izan ditzaketen jarrerak kontuan hartuta, goizetako topagune edo korroari garrantzi berezia emango zaio. Izan ere, helduontzako tabua da heriotza, eta familiaren eta bizi-zikloaren gaiaren ataletako bat bezala aurkeztuko bada ere, helduongan ezinegona sortu ahal digu, hitz egiteko ohitura hartu arte edo bizipenak gogora ekartzen badizkigu. Ezin egon horretaz kontziente egin daitezke haurrak, eta ohi baino zalantza eta galdera gehiago plazaratu. Beraz, egunero 30'z elkarrekin hitz egiteko aukera emango diegu hurrei, euren gogoetak, galderak, sentimenduak... entzun eta zintzoki erantzuteko.</p>			
<b>Helburuak</b>	<b>Edukiak</b>		
	<b>Jarrerak</b>	<b>Prozedurak</b>	<b>Kontzeptuak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Heriotzaz naturaltasunez hitz egitea.</li> <li>- Haurren sentimenduei tokia eskaintzea.</li> <li>- Elkarren arteko enpatia lantzea.</li> <li>- Besteen aurrean argi hitz egiten saiatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren eta ingurukoen sentimendu, emozio, bizipen, lehentasun eta interesez jankin mina.</li> <li>- Ingurukoen nortasunarekiko eta ezaugarriekiko errespetua.</li> <li>- Bere burua ezagutzeko eta emozioak adierazteko interesa.</li> <li>- Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko prestutasuna.</li> <li>- Ingurukoen azalpenak entzuteko interesa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azalpen argiak emateko saiakera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikatzeko bide eta baliabide desberdinak.</li> </ul>

<b>1. ZEREGIN OSAGARRIA: TOPAGUNeko TARTEARI GARRANTZI BEREZIA ESKAINTZEA</b>				
<b>Teknikak</b>	<b>Materialak</b>	<b>Espazioa</b>	<b>Denbora</b>	<b>Talde mota</b>
Elkarrizketa	Umeeek ekarriko balute	Topagune edo korroa	Egunero 30'	Talde kolektiboa
<b>Ebaluazioa</b>				
<b>Helburu zenbakia</b>	<b>Ebaluazio Tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>		
1	Erregistroa	Heriotzaz saio guztietan zehar behin gutxienez hitz egin du.		
2	Erregistroa	Haurrei euren sentimenduez hitz egiteko tarte egunero eskaini zaie.		
3	Behaketa	Besteen sentimendu eta pentsamenduak errespetatzen ditu.		
4	Behaketa	Taldea handian bere azalpena denek uler ditzaten saiatzeko estrategiak erakutsi ditu.		
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Umeeek egunero parte hartu dute,</li> <li>- Umeeek hitz egiterakoan txandak errespetatu dituzte.</li> <li>- Irakasleak egiaz erantzun du.</li> </ul>			

<b>2. ZEREGIN OSAGARRIA: MALETA IBILTARIA</b>			
<b>Deskribapena</b>			
<p>Ikasturtean zehar gai desberdinak jasoko dituen maleta izango da hau. Bere helburu nagusia ikasgelan lantzen denarekin loturiko ipuinak, filmak, poemak... etxera bideratuta, sendiei gelan egiten duguna gerturatzearena da. Aipatutako materialaz gain, berau erabiltzeko gida bat eta esperientziak jasotzeko koaderno bat egongo dira maletan. (Ikus. eranskinak 1)</p>			
<b>Helburuak</b>	<b>Edukiak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola eta familia elkarrengana gerturatzea.</li> <li>- Seme-alabek zein helduek elkarrekin gozatzea.</li> <li>- Heriotzaren tabua etxeke giroan gainditzen hastea.</li> </ul>	<b>Jarrerak</b>	<b>Prozedurak</b>	<b>Kontzeptuak</b>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren eta inguruko sentimendu, emozio, bizipen, lehentasun eta interesekiko jankin mina.</li> <li>- Inguruko nortasunarekiko eta ezaugarriekiko errespetua.</li> <li>- Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko prestutasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hurbileko hainbat gizarte-talde eta haien heriotzarekiko zenbait ekoizpen kultural eta balioen identifikazioa.</li> <li>- Azalpen argiak emateko saiakera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak</li> <li>- Norberaren familiaren ezaugarriak.</li> <li>- Izaki bizidunen bizitza-zikloa: jaiotzatik heriotzarainokoa.</li> <li>- Heriotzaren kontzeptua</li> <li>- Komunikatzeko bide eta baliabide desberdinak.</li> </ul>

<b>2. ZEREGIN OSAGARRIA: MALETA IBILTARIA</b>				
<b>Teknikak</b>	<b>Materialak</b>	<b>Espazioa</b>	<b>Denbora</b>	<b>Talde mota</b>
Elkarrizketa Ikus- entzunezkoak ikusi-entzun Liburuak irakurri	Maleta Ibiltaria (Ikus. eranskinak 1)	Ikasle bakoitzaren etxea.	Hiru- hilabete bat gai bakoitzeko	Haur bakoitzaren familia
<b>Ebaluazioa</b>				
<b>Helburu zenbakia</b>	<b>Ebaluazio Tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>		
1	Maleta Ibiltaria-ren koadernoko erregistroa	Familien erdiak edo gehiagok parte hartu dute.		
2	Maleta Ibiltaria-ren koadernoko erregistroa	Maleta Ibiltaria-ren koadernoan esperientziaz hitz egiten dute.		
3	Maleta Ibiltaria-ren koadernoko erregistroa	Familien erdiak edo gehiagok parte hartu dute.		
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Familien erdiak edo gehiagok parte hartu dute.</li> <li>- Familiek Maleta Ibiltaria-ren esperientziaren inguruan hitz egiten dute: hezitzaileekin edo-eta euren artean.</li> </ul>			



## **JARDUERA OINARRIZKOAK**

Jarraian, berriz, *familia eredu desberdinak* eta *bizitza-zikloarekin batera heriotza* uztartuko duen proposamen didaktikoaren jarduera oinarrizkoak agertzen dira.

Hasteko, jarduera motibatzaile bi eskaintzen dira gaien sartzeko, horietako lehenengoa aurre-ezagupenak biltzeko ere balio duelarik.

Ondoren, garapen-jarduerak etorriko dira, gaien sartu eta berau garatzeko.

Amaitzeko, berriz, sendotze- eta ebaluazio-jarduera bana agertzen dira, edukien mamia borobildu eta noraino barneratu duten baloratzeko.

## 1. ZEREGINA: ZUHAITZ GENEALOGIKOA (Jarduera motibatzailea eta aurrezagupenak)

### Deskribapena

Gelan zuhaitz-genealogikoa zer den, familia mota desberdinak daudela eta gurasoen gurasoetarainoko zuhaitza egingo dugula azalduko da. Horretarako, etxera ohar bat bidali eta senideen argazki txikiak gelara eramateko eskatuko diegu, bertan zuhaitzak egiteko.

Ariketa gelan egiterakoan, familia guztiak berdinak ez direla ikusiko da. Horretatik abiatuta, etxera joan baino lehen, topagunean bildu eta hitz egingo da.

Amaitzeko denborarik egongo ez denez, bigarren saio bat egin beharko da, beharbada ez lehenengoa bezain luzea. Ondoren, korroan bildu eta nahi duenak bere familia aurkeztuko du.

Hizketaldi horietatik hainbat gai atera daitezke: urrun bizi diren senideak, gurasoetariko bat ez ezagutzea, heriotzak, nuklearrak ez diren familia ereduak, jaiotzak... Gure kasuan, bizi-zikloarekin lotzeko, guztiari erantzungo diogun arren, jaiotza eta heriotzei emango diegu protagonismo handiagoa (ez horregatik garrantzi handiagoa).

Helburuak	Edukiak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norbere familia ezagutzea.</li> <li>- Urteetan zehar familiak aldatzen direnaz ohartzea.</li> <li>- Familia eredu desberdinak ezagutzea eta errespetatzea.</li> </ul>	<p><b>Jarrerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Gertuko gizarte-taldeak ezagutzera hurbiltzeko prestutasuna, konfiantza-, errespetu- eta estimazio-jarreraz.</li> <li>- Ikaskideen lanarekiko, sentimenduekiko eta iritziekiko errespetua.</li> <li>- Inguruko azalpenak entzuteko interesa.</li> </ul>	<p><b>Prozedurak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren aldaketa fisikoei eta denboraren joatearekin duten loturari hautematea.</li> <li>- Zuhaitz-genealogikoaren ekoizpena</li> <li>- Azalpen argiak emateko saiakera</li> </ul>	<p><b>Kontzeptuak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren familiaren ezaugarriak.</li> <li>- Izaki bizidunen bizitza-zikloa: jaiotzatik heriotzarako-</li> <li>- Ikaskideen eta inguruko familia eredu desberdinak.</li> <li>- Heriotzaren kontzeptua</li> </ul>

<b>1. ZEREGINA: ZUHAITZ GENEALOGIKOA</b> (Jarduera motibatzailea eta aurrezagupenak)				
<b>Teknikak</b>	<b>Materialak</b>	<b>Espazioa</b>	<b>Denbora</b>	<b>Talde mota</b>
Zuhaitz-genealogikoa	Kartulina Errotulkiak Argazkiak	Ikasgela	<b>1. saioa:</b> Azalpena 20' Zuhaitza egitea 30' Topagunea 15' <b>2. saioa:</b> Zuhaitza amaitu 20' Aurkezpena 20'	<b>Azalpena:</b> Talde kolektiboa <b>Gauzatzea:</b> Banaka <b>Batera jartzea:</b> Talde txikietan Talde handian
<b>Ebaluazioa</b>				
<b>Helburu zenbakia</b>	<b>Ebaluazio Tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>		
1	Ikasle bakoitzaren zuhaitz-genealogikoa	Bere familiaren zuhaitz-genealogikoa egin du.		
2	Behaketa	Familetan, urteetan zehar, jaiotzak eta heriotzak daudela onartzen du.		
3	Behaketa	Ikaskideen familien inguruko azalpenak arretaz eta errespetuz entzun ditu.		
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen gehiengoak euren familiaren inguruan hitz egin du.</li> <li>- Familia eredu desberdinak agertu dira.</li> <li>- Heriotzaz eta jaiotzaz hitz egin da.</li> <li>- Ikasleek urteetan zehar bizi izan dituzten gorputz-aldaketez hitz egin dute.</li> </ul>		

**2. ZEREGINA: ARGIZAIOLA EGITEA (Jarduera motibatzailea)****Deskribapena**

Gaiari heldu baino astebete lehenago edo, familiei oharra idatziko zaie, kartoiak gelara eramaten hasteko eta guk nahi dugun egunean gelara gonbidatuz (Ikus. eranskinak 2).

Senideak gelara datozen egunean, heldu bakoitza bere umearen ondoan jarriko da binaka argizaiola egiteko.

Argizaiola Euskal Herrian hildakoei bidea erakutsi eta sutondoko epeltasuna helarazteko erabili izan delako aukeratu da. (Ikus: [http://www.santelmomuseoa.com/index.php?option=com\\_flexicontent&view=items&id=27&Itemid=44](http://www.santelmomuseoa.com/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=27&Itemid=44) )

Egin bitartean, elkarrizketa bultzatuko da eta nahi duen helduak bere esperientzia kontatuko du, bere aiton-amonak, gurasoak, hildako senideak... gogora ekarriz.

Helburuak	Edukiak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Helduek eta txikiek elkarrekin gozatzea.</li> <li>- Familiaren eta Eskolaren arteko hurbilpena egin eta mugak haustea.</li> <li>- Euskal kulturara hurbiltzea.</li> <li>- Familiei euren kulturaz hitz egiteko aukera eskaintzea.</li> </ul>	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gertuko gizarte-taldeak ezagutzera hurbiltzeko prestutasuna, konfiantza-, errespetu- eta estimazio-jarreraz.</li> <li>- Inguruneok heriotzarekiko dituzten ohiturak ezagutzeko jakin mina.</li> <li>- Ikaskideen lanarekiko, sentimenduekiko eta iritziekiko errespetua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hurbileko hainbat gizarte-talde eta haien heriotzarekiko zenbait ekoizpen kultural eta balioen identifikazioa.</li> <li>- Inguruan dauden gizarte- eta kultura-jardueretan parte-hartzea.</li> <li>- Hildakoen agurrerako objektuak sortzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren kultura-nortasuneko heriotzarekiko zenbait ezaugarri.</li> <li>- Ikaskideen eta inguruko familia eredu desberdinak.</li> </ul>

<b>2. ZEREGINA: ARGIZAIOLA EGITEA (Jarduera motibatzailea)</b>				
<b>Teknikak</b>	<b>Materialak</b>	<b>Espazioa</b>	<b>Denbora</b>	<b>Talde mota</b>
Elkarrizketa Idazketa Margotzea Zulatzea Itsastea	Kartoi lodia Puntzoia Errotulkiak Margotzeko argizariak Gometxak Artilea Kandela txikiak Kola txuria	Ikasgela	Arratsalde oso bat 1h 30'/2h	<b>Talde txikian:</b> Oharra elkar lagunduz idaztea. <b>Talde kolektiboa:</b> azalpena emateko eta ohar-eredua egiteko. <b>Binaka (heldu-haur):</b> argizaiola egiteko.
<b>Ebaluazioa</b>				
<b>Helburu zenbakia</b>	<b>Ebaluazio Tresnak</b>		<b>Ebaluazio irizpideak</b>	
1	Behaketa eta elkarrizketa		Helduek eta txikiek elkarrekin gozaten dute.	
2	Behaketa		Ume bakoitzeko senide bana etorri da.	
3	Ikasle bakoitzaren argizaiola		Bikote bakoitzak bere argizaiola sortu du.	
4	Behaketa eta elkarrizketa		Gutxienez bi helduk euren testuinguruan hildakoak nola agurtzen zituzten komentatu dute edo hildakoak gogora ekarri dituzte.	
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>	- Giro atsegina egon da: irrifarrak, besarkadak, emozionatutakoak...			

<b>3. ZEREGINA: IKUS-ENTZUNEZKOA</b>			
<b>Deskribapena</b>			
<p>Bideoak ikusi eta horiek aitzakiatzat hartuta bizitza-zikloaz hitz egingo da. Lehenengoarekin gizakion egozentrismoa hautsiz, argi utziz urte asko barru, guk ezagututako guztiak hildakoan ere, bizitzak jarraituko duela. Bigarrenarekin, hil direnekin bizitako momentu onak gogoratzeko garrantziaz.</p> <p>Hizketaldiak tartekatua egingo dira, alegia, bideo bakoitzaren ondoren.</p>			
<b>Helburuak</b>	<b>Edukiak</b>		
	<b>Jarrerak</b>	<b>Prozedurak</b>	<b>Kontzeptuak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizakion bizi-funtzioak ezagutzea.</li> <li>- Bizitza-zikloa barneratzea.</li> <li>- Hildakoek bizi-funtziorik ez dutela barneratzea.</li> <li>- Guk ezagututako guztiak hil ondoren ere bizitzak jarraituko duela ulertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren kultura-nortasuneko heriotzarekiko zenbait ezaugarri</li> <li>- Heriotzaren kontzeptua</li> <li>- Norberaren eta inguruko sentimendu, emozio, biziaren lehentasun eta interesekiko jankin mina.</li> <li>- Bere burua ezagutzeko eta emozioak adierazteko interesa.</li> <li>- Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko prestutasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren aldaketa fisikoei eta denboraren joatearekin duten loturari hautematea.</li> <li>- Bizi-funtzioen azalpena.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak.</li> <li>- Izaki bizidunen bizi-funtzioak.</li> <li>- Izaki bizidunen bizitza-zikloa: jaiotzatik heriotzarainokoa.</li> <li>- Heriotzaren kontzeptua.</li> <li>- Komunikatzeko bide eta baliabide desberdinak.</li> </ul>

3. ZEREGINA: IKUS-ENTZUNEZKOA				
Teknikak	Materialak	Espazioa	Denbora	Talde mota
Ikustea Elkarrizketa	- Attraction perform their stunning shadow - Día de los muertos (Ikus.: Bibliografia, linkak)	Ikasgela	<b>Bideoak)ikusi:</b> 15' eta 10' <b>Batera jartzea:</b> 15'+15'	Talde kolektiboa
Ebaluazioa				
Helburu zenbakia	Ebaluazio Tresnak	Ebaluazio irizpideak		
1	Elkarrizketa	Gizakion bizi-funtzioak zerrendatzen ditu.		
2	Elkarrizketa	Bizitza-zikloaren hiru atal nagusiak (jaio- hazi-hil) izendatzen ditu.		
3	Elkarrizketa	Hildakoek zein bizi-funtzio ez duten azaltzen badaki.		
4	Behaketa eta elkarrizketa	Guk ezagututako guztiak hil ondoren bizitzak jarraituko duela ulertzen du.		
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bideoan ikusitakoa azaltzen dakite.</li> <li>- Beraien txikitako ezaugarri batzuk (orain dagoeneko ez dituztenak) aipatzen dituzte.</li> </ul>			

<b>4. ZEREGINA: ABESTIA: Estaba el Señor don Gato</b>			
<b>Deskribapena</b>			
<p>“Estaba el Señor Don Gato” abestia entzungo dugu (2-3 aldiz) eta horretaz hitz egin. (Ikus. eranskinak 3)</p> <p>Amaitzeko eta emozioei eta emozioen aniztasunari garrantzia emateko, folio bana eman eta abestiak gogora ekartzen diena marrazteko eskatuko zaie.</p> <p>Hemendik aurrera, goizeko topagunean, umeei nahi izanez gero, abestia behin jarriko da, horrela, erdal abesti herrikoiei ere tokia irekiko zaie. Euskal kulturaz gain beste kulturak ere aintzat hartzen direla ikustaraziko da.</p> <p>Beste batzuek bizitzarekin edo familiarekin lotutako abestiak edo ipuinak ekarri nahi badituzte, ekar ditzaten gonbidapena luzatuko diegu.</p>			
<b>Helburuak</b>	<b>Edukiak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aspaldiko abestiak entzuten gozatzea.</li> <li>- Berpiztuaren ezintasunaz kontzientzia hartzea.</li> <li>- Emozioak adierazteko bide desberdinak erabiltzea.</li> </ul>	<b>Jarrerak</b>	<b>Prozedurak</b>	<b>Kontzeptuak</b>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere burua ezagutzeko eta emozioak adierazteko interesa.</li> <li>- Inguruneak heriotzarekiko dituzten ohiturak ezagutzeko jakin mina.</li> <li>- Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko prestutasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hurbileko hainbat gizarte-talde eta haien heriotzarekiko zenbait ekoizpen kultural eta balioen identifikazioa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren kultura-nortasuneko heriotzarekiko zenbait ezaugarri.</li> <li>- Heriotzaren kontzeptua.</li> </ul>



<b>4. ZEREGINA: ABESTIA: Estaba el Señor don Gato</b>				
<b>Teknikak</b>	<b>Materialak</b>	<b>Espazioa</b>	<b>Denbora</b>	<b>Talde mota</b>
Entzutea	Abestia: CD-an edo Youtuben. (Ikus. eranskinak 3)	Ikasgela	Abestia entzun 10'-15' Elkarrizketa 15' Marraskia 15' Egunero 5'-10'	Talde kolektiboa
<b>Ebaluazioa</b>				
<b>Helburu zenbakia</b>	<b>Ebaluazio Tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>		
1	Behaketa	Hezitzaileak eskatu gabe abestu dute.		
2	Elkarrizketa	Izaki bizidunok berpizten ez garela hitz egin da.		
3	Ikasle bakoitzaren marraskia	Ikasle bakoitzak bere marraskia egin du.		
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hurrengo egunetan abestia jartzeko eskatu dute.</li> <li>- Abestia gogotsu abesten dute.</li> </ul>			

<b>5. ZEREGINA: IPUINA: LA MORA</b>			
<b>Deskribapena</b>			
<p>Korroan bilduta, <i>La mora</i> (Garabana, A. &amp; Villán, Ó. 2005) ipuina kontatuko zaie (Ikus. eranskinak 4).</p> <p>Ondoren, euren zalantza guztiak argituko dira, egiarekin beti. Beraien hizketaldiak bultzatzeko, bizi-zikloa azpimarratuko da: heriotza eman behar dela jaiotzak gertatzeko.</p> <p>Kontuan izan beharko dugu, gustatu bazaie, ipuina behin baino gehiagotan kontatzeko eskaera egingo digutela. Hori izango da, hain zuzen ere, jardueraren arrakastaren indikatzailleetako bat.</p>			
<b>Helburuak</b>	<b>Edukiak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ipuinak entzuten gozatzea.</li> <li>- Bizitza-zikloa ikustea.</li> <li>- Bizitzak jarraitzeko hainbat izaki hil behar direla jasotzea.</li> </ul>	<b>Jarrerak</b>	<b>Prozedurak</b>	<b>Kontzeptuak</b>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko prestutasuna.</li> <li>- Inguruko azalpenak entzuteko interesa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren aldaketa fisikoei eta denboraren joatearekin duten loturari hautematea.</li> <li>- Azalpen argiak emateko saiakera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaki bizidunen bizitza-zikloa: jaiotzatik heriotzarainokoa.</li> <li>- Heriotzaren kontzeptua.</li> <li>- Komunikatzeko bide eta baliabide desberdinak.</li> </ul>

<b>5. ZEREGINA: IPUINA: LA MORA</b>				
<b>Teknikak</b>	<b>Materialak</b>	<b>Espazioa</b>	<b>Denbora</b>	<b>Talde mota</b>
Narrazioa Entzutea	“La mora” liburua. (Ikus. eranskinak 4)	Ikasgela	Ipuina kontatu 15’- 20’ Elkarrizketa 20’	Talde kolektiboa
<b>Ebaluazioa</b>				
<b>Helburu zenbakia</b>	<b>Ebaluazio Tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>		
1	Behaketa	Ipuina arretaz entzun du.		
2	Behaketa	Ipuina arretaz entzun du.		
3	Elkarrizketa	Ipuineko izakiak hazi eta hil egiten direla beste bat jaiotzeko, aipatu dute.		
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>	- Hurrengo egunetan ipuina kontatzeko eskatu dute.			

**6. ZEREGINA: SENTIMENDUAK ANTZEMATEA****Deskribapena**

Jarduera honetan bizitzan zehar ematen diren hainbat egoera erreal ezagutuko dira.

Topagune edo korroan daudela, umeei, talde handian, hainbat egoera erakutsiko zaizkie kartulintan (ikus. eranskinak 5).

Beste kartulina batzuk hainbat sentimendu erakusten dutenak ere eskuratuko zaizkie: haserre, beldurtuta, pozik, iseka egiten, negarrez eta izututa (ikus. eranskinak 6).

Talde handian egoera bakoitzari sentimendu bat lotzeko eskatuko zaie. Ondoren, irakaslea gerturatuko da eta banan-banan sentimenduen eta egoeraren arteko erlazioa azaltzeko eskatuko die.

Baina, “tranpa” txiki bat du jarduera honek, izan ere, maisu edo maistrak ikustaraziko die umeei egoera berdinean pertsona guztiak desberdin sentitu daitezkeela, baita aurkeztutako egoeretako protagonisten artean ere.

Helburuak	Edukiak		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nork bere emozio eta sentimenduak ezagutzea.</li> <li>- Denok berdin sentitzen ez dugula ulertzea.</li> <li>- Besteekiko enpatia lantzea.</li> <li>- Adostasun batera iristen laguntzea.</li> <li>- Taldeko erabakia komunikatzea.</li> </ul>	Jarrerak	Prozedurak	Kontzeptuak
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren eta inguruko sentimendu, emozio, bizipen, lehentasun eta interesekiko jankin mina.</li> <li>- Inguruko nortasunarekiko eta ezaugarriekiko errespetua.</li> <li>- Bere burua ezagutzeko eta emozioak adierazteko interesa.</li> <li>- Ikaskideen lanarekiko, sentimenduekiko eta iritziekiko errespetua.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azalpen argiak emateko saiakera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikatzeko bide eta baliabide desberdinak.</li> </ul>

<b>6. ZEREGINA: SENTIMENDUAK ANTZEMATEA</b>				
<b>Teknikak</b>	<b>Materialak</b>	<b>Espazioa</b>	<b>Denbora</b>	<b>Talde mota</b>
Elkarrizketa Eztabaida Banakako azalpena	Gertaera eta sentimenduen kartulinak (Ikus. eranskinak 6)	Topagunea	Jarduera aurkeztu 5'- 10' Lotura egitea 10'	Talde kolektiboa
<b>Ebaluazioa</b>				
<b>Helburu zenbakia</b>	<b>Ebaluazio Tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>		
1	Elkarrizketa	Egoera bakoitzean nola sentituko litzatekeen adierazten du.		
2	Behaketa	Besteek plazaratzen dituzten sentimenduak errespetatzen ditu.		
3	Behaketa eta elkarrizketa	Besteek plazaratzen dituzten sentimenduak ulertzen ditu (ados egon ez arren).		
4	Behaketa	Gertaera eta sentimenduak lotzean adostasuna lortzen lagundu du.		
5	Behaketa eta elkarrizketa	Gertaera bakoitza lotutako sentimenduarekin zergatik lotu duten adierazten du.		
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errespetuzko eztabaida sortu da.</li> <li>- Oihurik ez dago.</li> <li>- Erantzun zuzen bakarra ez dagoela ulertu dute.</li> <li>- Pertsona bakoitza desberdin sentitu daitekeela onartu dute.</li> </ul>			

<b>7. ZEREGINA: ESKELA/JAIOTZA LIBURUA (Sendotze-jarduera)</b>			
<b>Deskribapena</b>			
<p>Hainbat egunkari eramango dira, eskelak eta jaiotzak azaltzen diren orriak ikusteko. Hildakoak zein jaioberriak agurtu egiten direla azpimarratuko diegu umeei eta nahi dituzten galdera eta iruzkin guztiak egin ahal izango dituzte. Ondoren, txantiloak banatu (ikus. eranskinak 7) eta bakoitzak nahi duen pertsona edo animalia (ikasleen aldetik beste proposamenik ez badago) agurtzeko eskatuko zaie: jaiotakoak, hildakoak, urrun bizitzera joandakoak...</p>			
<b>Helburuak</b>	<b>Edukiak</b>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Agurtzeko oharrak ezagutzea.</li> <li>- Jaio edo hil den norbaitengan nolako sentimenduak dituzten antzematea.</li> <li>- Eskela eta jaiotza liburua sortzea.</li> </ul>	<b>Jarrerak</b>	<b>Prozedurak</b>	<b>Kontzeptuak</b>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere burua ezagutzeko eta emozioak adierazteko interesa.</li> <li>- Ikaskideen lanarekiko, sentimenduekiko eta iritziekiko errespetua.</li> <li>- Heriotzaz naturaltasunez hitz egiteko prestutasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hurbileko hainbat gizarte-talde eta haien heriotzarekiko zenbait ekoizpen kultural eta balioen identifikazioa.</li> <li>- Hildakoen agurrerako objektuak sortzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaki bizidunen bizitza-zikloa: jaiotzatik heriotzarainokoa.</li> <li>- Norberaren kultura-nortasuneko heriotzarekiko zenbait ezaugarri.</li> <li>- Heriotzaren kontzeptua.</li> </ul>

<b>7. ZEREGINA: ESKELA/JAIOTZA LIBURUA (Sendotze-jarduera)</b>				
<b>Teknikak</b>	<b>Materialak</b>	<b>Espazioa</b>	<b>Denbora</b>	<b>Talde mota</b>
Idazketa Marrazketa	Txantiloia (Ikus. eranskinak 7) Arkatza Borragoma	Ikasgelan bakoitzarentzako mahai eta aulki banarekin.	<b>Jarduera aurkeztea</b> 15'-20' <b>Txantiloia bete</b> 20'- 25'	<b>Azalpena:</b> Talde kolektiboa <b>Txantiloia betetzea:</b> Banaka ( <i>talde txikitan kokatuta</i> )
<b>Ebaluazioa</b>				
<b>Helburu zenbakia</b>	<b>Ebaluazio Tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>		
1	Ikasle bakoitzaren agur-oharra	Agur-oharra idatzi du.		
2	Elkarrizketa	Aukeratutako pertsona/animalia zergatik aukeratu duen azaltzen du.		
3	Eskela eta jaiotza liburua	Eskela eta jaiotza liburua sortu dugu.		
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskela eta jaiotza liburua etxeetara eramán nahi dute.</li> <li>- Agur bat baino gehiago egin nahi dutela diote.</li> </ul>			

<b>8. ZEREGINA: BIZITZAREN HORMAIRUDIA (Ebaluazio-jarduera)</b>			
<b>Deskribapena</b>			
<p>Ikasleek talde txikietan (4-5 ikasle) banatuta bizitza-zikloa islatzen duen hormairudia egingo dute. Horretarako hiru saio eskainiko dira. Irakasleak talde bakoitzaren ideiak bideratzen lagunduko du.</p> <p>Lehenengo saioan, taldez talde marrazkiren bat inprimaturik behar ote duten eskatuko zaie (collage modukoa egiteko: animaliak, hilobia, jaioberriak... marrazten ez badakite, lagungarri gisa).</p> <p>Bigarren saioan koloreztatu eta nahi/behar duten tokian itsatsi.</p> <p>Hirugarren saioan azkeneko urratsak eman eta erakusgai non jarriko den adostu eta jarri.</p>			
<b>Helburuak</b>	<b>Edukiak</b>		
	<b>Jarrerak</b>	<b>Prozedurak</b>	<b>Kontzeptuak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizitza-zikloa barneratu dutela adieraztea.</li> <li>- Heriotza bizitza-zikloaren etapa gisa adieraztea.</li> <li>- Komunikatzeko bide desberdinak erabiltzea.</li> <li>- Talde lanean aritzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikaskideen lanarekiko, sentimenduekiko eta iritziekiko errespetua.</li> <li>- Inguruko azalpenak entzuteko interesa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren aldaketa fisikoei eta denboraren joatearekin duten loturari hautematea.</li> <li>- Inguruan dauden gizarte-eta kultura-jardueretan parte-hartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputzaren ezaugarriak eta nolakotasunak.</li> <li>- Norberaren familiaren ezaugarriak.</li> <li>- Izaki bizidunen bizitza-zikloa: jaiotzatik heriotzarainokoa.</li> <li>- Ikaskideen eta inguruko familia eredu desberdinak.</li> <li>- Komunikatzeko bide eta baliabide desberdinak.</li> </ul>



<b>8. ZEREGINA: BIZITZAREN HORMAIRUDIA (Ebaluazio-jarduera)</b>				
<b>Teknikak</b>	<b>Materialak</b>	<b>Espazioa</b>	<b>Denbora</b>	<b>Talde mota</b>
Marrazketa Collage Itsastea Hurrek proposatutakoa	Paper rolloa Margoak Errotulkiak Barrako kola Arkatzak Borragomak Zeloa eta “Glut”-a	Ikasgela eta hormairudiak erakusgai jartzeko umeek proposatutakoa.	30'-ko 3 saio	Talde txikiak
<b>Ebaluazioa</b>				
<b>Helburu zenbakia</b>	<b>Ebaluazio Tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>		
1	Hormairudia	Jaiotzaberria, haurra, heldua eta heriotza islatu dituzte.		
2	Hormairudia	Heriotzarekin erlazionatutako elementuren bat badago.		
3	Hormairudia	Hormairudian teknika desberdinak erabili dituzte.		
4	Behaketa	Denen artean adostu dute zer egin. Denek hartu dute parte.		
<b>Ebaluazio Indikatzaileak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Heriotzarekin erlazionatutako irudia ez dute hormairudiaren muturretan jarri (ez dute bizitzaren amaieratzat hartzen).</li> <li>- Marraztu dutena erakusteko gogotsu agertzen dira.</li> </ul>			

<b>6. GAITASUNEN EBALUAZIOA</b>			
<b>Zkia.</b>	<b>Ebaluazio tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>	<b>Ebaluazio indikatzaileak</b>
<b>1</b>	Behaketa Elkarrizketa Hormairudia Maleta Ibiltaria- ren koadernoak	- Bizitza-zikloaren etapak zerrendatzen ditu. - Hil ondoren berpizten ez garela argi adierazten du.	- Bizitza-zikloaz gogotsu hitz egiten dute jarduerak aurrera eramaten diren denboran zehar.
<b>2</b>	Behaketa Elkarrizketa Zuhaitz- genealogikoa Eskela eta jaiotza liburua	- Zuhaitz-genealogikoa egin du. - Eskela edo-eta jaiotza agurra egin du. - Bere familiaz hitz egiten du.	- Hildakoak gogora ekartzen dituzte.
<b>3</b>	Argizaiola Eskela eta jaiotza liburua Behaketa Elkarrizketa	- Argizaiola egin du. - Eskela edo-eta jaiotza agurra egin du.	- Senide bana gerturatu da gelara. - Gurasoak gelan zeudela giro atsegina egon da. - Senideek ekintzaz positiboki hitz egiten dute

<b>6. GAITASUNEN EBALUAZIOA</b>			
<b>Zkia.</b>	<b>Ebaluazio tresnak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>	<b>Ebaluazio indikatzaileak</b>
<b>4</b>	Elkarrizketa Behaketa Maleta Ibiltaria- ren koadernoak Marraskia	- Konpartitu ez arren, ikaskideen sentimenduak ulertzen eta errespetatzen ditu. - Bere sentimenduak identifikatzen ditu. - Bere sentimenduak adierazten ditu.	- Eztabaidak egon arren, ez dago oihurik edo liskarrik.
<b>5</b>	Zuhaitz- genealogikoa Behaketa Elkarrizketa	- Bere zuhaitz- genealogikoa egin du. - Besteen zuhaitz- genealogikoak arretaz begiratu ditu.	- Interesa erakusten dute familia-eredu desberdinengan.
<b>6</b>	Hormairudia Marraskia	- Zuhaitz-genealogikoa egiten parte hartu du. - Abestiak sortutako sentimenduen marraskia egin du.	- Azalpenak ematerakoan denek ez dute bide berdina eskatzen.

## 7. Bibliografia

### PROPOSAMEN DIDAKTIKOA GARATZEKO ERABILITAKOA

Arnal Gil, T. (2012): La muerte. Cuentos que ayudan a comprenderla. Heriotza ulertzen laguntzen diguten ipuinak. *Biblioteka Ermua*. Ermua, Bizkaia: Ermuko Udal Liburutegia. [http://www.galtzagorri.org/irakurketa\\_gidak/dokumentuak/heriotza\\_gida\\_ermua.pdf](http://www.galtzagorri.org/irakurketa_gidak/dokumentuak/heriotza_gida_ermua.pdf) -tik berreskuratua.

Arnal Gil, T. (2010): Tabuak haur literaturan. Tabúes en la literatura infantil. *Juan San Martín Liburutegia & Biblioteka Ermua*. Ermua, Bizkaia: Ermuko Udal Liburutegia. <http://issuu.com/liburutegia/docs/tabuak/16?e=0/7410923> -tik berreskuratua.

De la Herrán Gascón, A. & Cortina Selva, M. (2006): *La muerte y su didáctica. Manual para Educación Infantil, Primaria y Secundaria*. Editorial Universitas, S.A.: Madril.

De la Herrán Gascón, A. & Cortina Selva, M. (2011): *Pedagogía de la muerte a través del cine*. Editorial Universitas, S.A.: Madril.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2009). 12/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituenak. <http://www.euskadi.net/bopv2/datos/2009/01/0900469a.pdf> -tik berreskuratua.

Poch, C. (2009). Para saber más. *Cuadernos de Pedagogía*, (388) 76-77.

## PROPOSAMEN DIDAKTIKORAKO MATERIALA

ARGIZAIOLA:

[http://www.santelmomuseoa.com/index.php?option=com\\_flexicontent&view=items&id=27&Itemid=44](http://www.santelmomuseoa.com/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=27&Itemid=44)

IKUS-ENTZUNEOA:

**Attraction          perform          their          stunning          shadow :**

<https://www.youtube.com/watch?v=a4Fv98jttYA>

**Día de los muertos:** <https://www.youtube.com/watch?v=XIRzfl1BGbl>

ABESTIA:

Estaba el Señor Don Gato: [https://www.youtube.com/watch?v=9Oyz\\_egsKI4](https://www.youtube.com/watch?v=9Oyz_egsKI4)

LA MORA. IPUINA:

Garabana, A. & Villán, Ó. (2005): *La mora*. Kalandraka: Sevilla.

SENTIMENDUAK:

Smee, N. (2005): *Funny Face*. Bloomsbury Publishing: London.

## MALETA IBILTARIA-REN MATERIALA

**Filmak:**

BALTO (1995): Zuz.: Simon Wells. Universal Pictures.

NEMO (2003): Zuz.: Lee Unkrich & Andrew Stanton. Disney Pixar.

**Liburuak:**

Ramon, E. & Osuna, R. (2003): *Ez da erraza katagorri*. Kalandraka: Pontevedra.

Schössow, P. (2006): *¿Cómo es posible?! La historia de Elvis*. Lóguez Ediciones: Salamanca.

Van Ommen, S. (2005): *Regaliz*. Kókinos: Madril

## **8. Eranskinak**

## 1. eranskina: Maleta Ibiltaria: MALETAREN AURKEZPENA

### MALETA IBILTARIA

Kaixo, familiak!

Maleta honen bitartez, ikasturtean zehar gai desberdinak etxean lantzeko aukera luzatu nahi dizuegu.

Bertan, hainbat material ikusiko dituzue:

Alde batetik, hainbat **liburu** eta **bideo** aurkitu ditzakezue.

Beste alde batetik, liburu eta bideoak etxeko txikiekin ikustean, hitz egin daitekeenaren **gidoi** labur bat.

Azkenik, **koaderno** bat topatuko duzue, zuen esperientziaren inguruan utzi nahi duzuen plazaratzeko.

Argi izan Maleta Ibiltaria erabiltzea ez dela derrigorrezkoa, ezta material guztiak ikustea ere. Esperientzia koadernoan idaztea ere ez da derrigorrezkoa, baina animatuz gero, denontzako oso aberatsa izango da: beste familientzat eta irakasleontzat gain, bereziki zuentzat, bizitzako esperientziaz hausnartu eta kontzientzia handiagoa hartzeko. Izan ere, Maletan sartuko ditugun gaiak lantzerantz ez gaude ohituak.

Animatu etxera eramaten eta gozatu zuen txikiekin!

4 eta 5 urteko geletako maisu-maistrak.

## LA MALETA VIAJERA

¡Hola, familias!

Mediante esta maleta os presentamos la oportunidad de tratar en casa distintos temas a lo largo del año.

En ella habrá distintos materiales:

Por un lado, encontraréis algunos **libros** y algunas **películas**.

Por otro lado, se os hará llegar un pequeño **guión** para facilitaros el hablar con los pequeños y las pequeñas de casa sobre el tema presentado en los materiales.

Por último, tendréis un **cuaderno** para que contéis todo lo que queráis sobre la experiencia vivida.

Tened claro que el uso de La Maleta Viajera no es obligatorio, como tampoco lo es el utilizar todos los materiales. El hecho de escribir la experiencia en el cuaderno tampoco es obligatorio, sin embargo, si os animáis será muy enriquecedor para todos y todas; especialmente para vosotras y vosotros, puesto que os hará reflexionar y tomar mayor conciencia de lo vivido. Tened en cuenta que los de la Maleta son temas que estamos poco acostumbrados y acostumbradas a tratar.

¡Animaos a llevarla a casa y a gozar con vuestros pequeños y vuestras pequeñas!

Las maestras y los maestros de las aulas de 4 y 5 años.



## 1. eranskina: Maleta Ibiltaria: HERIOTZAREN MALETAREN AURKEZPENA

### MALETA IBILTARIA-ko MATERIALAK: HERIOTZA

Kaixo, familiak!

Hiruhilabete honetan, jakingo duzuenez, *familia eredu desberdinak* eta *bizitza-zikloa* ari gara gelan lantzen. Gainera, horrekin lotuta, berriztapen gisa, *heriotza* ere sartu dugu. Horregatik, besteak beste, gaia etxean lantzea errazteko, material hauek helaraztea erabaki dugu:

#### **LIBURUAK:**

- ¿Cómo es posible?! La historia de Elvis
- Ez da erraza, Katagorri.
- Regaliz

#### **BIDEOAK:**

- Nemo
- Balto

Hurrengo orrialdeetan, material bakoitzeko fitxa bana aurkituko duzue, datu teknikoez gain, material bakoitzaz hitz egiteko gidoiarekin.

Goza ezazue!

4 eta 5 urteko geletako maisu-maistrak.

## **MATERIALES DE LA MALETA VIAJERA: LA MUERTE**

¡Hola, familias!

Este trimestre, como ya sabréis, en clase estamos trabajando *los distintos modelos de familia* y *el ciclo vital*. Además, relacionada con ambos temas y como innovación, hemos incluido el tema de *la muerte*. Por eso, entre otras cosas, para facilitaros el trabajo en casa, hemos decidido haceros llegar a casa estos materiales:

### **LIBROS:**

- ¡¿Cómo es posible?! La historia de Elvis
- Ez da erraza, Katagorri.
- Regaliz

### **VIDEOS:**

- Nemo
- Balto

En las siguientes páginas incluimos una ficha por cada material que, además de los datos técnicos, incluye el guión para hablar sobre el tema en cuestión.

¡Disfrutad!

Las maestras y los maestros de las aulas de 4 y 5 años.

**1. eranskina: Maleta Ibiltaria: FITXAK****BALTO**

---

**Zuzendaria:** Simon Wells

**Herrialdea:** EEBB

**Urtea:** 1995

**Iraupena:** 78'

**Banatzailea:** Universal Pictures

**Laburpena/Resumen:** Balto txakurra, bere jatorria dela eta nahasia dago eta Alaskan, lagunak dituen arren, baztertuta sentitzen da. Egun batean, Nomeko umeen artean epidemia bat zabaltzen da eta, elur-ekaitz batek sarbide guztiak blokeatu dituen bezala, ezinezkoa da sendagairik eskuratu. Baltok bizitzak salbatuko ditu. Historia erreal batean oinarritua. *Balto es un perro confuso respecto a sus orígenes y en Alaska se siente marginado. Un día, se extiende una epidemia entre los niños de Nome. A causa de la nieve todas las entradas a la ciudad quedan colapsadas, siendo imposible recibir las medicinas necesarias. Sin embargo, Balto salvará muchas vidas. Basada en hechos reales.*

**BALTO**

---

- 1.- Zer da gehien gustatu zaizuna? *¿Qué es lo que más te ha gustado?*
- 2.- Zertarako behar ziren sendagaiak? *¿Para qué se necesitaban los medicamentos?*
- 3.- Ba al dakizu zerk hiltzen duen jendea? *¿Sabes de qué se muere la gente?*
- 4.- Zuk uste duzu noizbait hilko garela? *¿Crees que nos vamos a morir algún día?*

## **NEMO**

---

**Zuzendaria:** Andrew Stanton

**Herrialdea:** EEBB

**Urtea:** 2003

**Iraupena:** 100'

**Banatzailea:** Pixar Animation Studios

**Laburpena/Resumen:** Nemo, pailazo-arrain gazte bat, urpekari batzuek harrapatzen dute, Nemoren aita begira dagoela. Harrez geroztik, Marlinen (aita) helburua Nemo topatzea izango da, horretarako Doryren laguntza izango duelarik. Bidaian zehar mota guztietako itsas-izakiak ezagutuko dituzte, haien elkartasuna eskainiko dietenak. *Nemo, un joven pez payaso, es capturado por unos buceadores ante la mirada de su padre. Desde ese momento el objetivo de Marlin (el padre de Nemo) será encontrar a Nemo. Para ello contará con la ayuda de Dory. A lo largo del viaje conocerán muchos habitantes marinos, quienes les brindarán su apoyo.*

## **NEMO**

---

- 1.- Zer da gehien gustatu zaizuna? *¿Qué es lo que más te ha gustado?*
- 2.- Zer gertatu zaió Nemoren amari? *¿Qué le ha pasado a la madre de Nemo?*
- 3.- Zergatik zegoen larrituta Marlin? *¿Por qué estaba preocupado Marlin?*
- 4.- Ba al dakizu zerk hiltzen duen jendea? *¿Sabes de qué se muere la gente?*
- 5.- Zuk uste duzu noizbait hilko garela? *¿Crees que nos vamos a morir algún día?*

**REGALIZ**

---

**Idazlea:** Sylvia Van Olmmen

**Urtea:** 1995

**Argitaletxea:** Kókinos

**Herraldea:** Madril

**Laburpena/Resumen:** Jorge untxia eta Oscar katua parkean jolasteko geratuak daude, pic-nica egin eta erregaliza jateko. Bat-batean, euren litxarkeria urdin batek bultzatuta, zerua, heriotza eta adiskidetasunaren biziraupenaz galdetzea dakarkie. *Jorge el conejo y Óscar el gato han quedado en el parque para jugar, hacer un pic-nic y comer regaliz. De repente, el color azul de una de sus gominolas, les induce a hablar sobre el cielo, la muerte y la supervivencia de la amistad.*

**REGALIZ**

---

- 1.- Zer da gehien gustatu zaizuna? *¿Qué es lo que más te ha gustado?*
- 2.- Zerk larritzen ditu Jorge eta Oscar? *¿Qué preocupa a Jorge y Óscar?*
- 3.- Zerk larritzen zaitu zu heriotzaren inguruan? *¿Qué te preocupa a ti sobre la muerte?*
- 4.- Ba al dakizu zerk hiltzen duen jendea? *¿Sabes de qué se muere la gente?*
- 5.- Zuk uste duzu noizbait hilko garela? *¿Crees que nos vamos a morir algún día?*

## ***¿CÓMO ES POSIBLE?! LA HISTORIA DE ELVIS***

---

**Idazlea:** Peter Schössow

**Urtea:** 1995

**Argitaletxea:** Lóquez

**Herraldea:** Salamanca

**Laburpena/Resumen:** Neskato batek Elvis bere kanarioa galtzen du. Ez du gertatutakoa ulertzen. Azalduko dion norbait behar du; bera lagundu eta bere mina konpartituko duena. *Una niña sufre la pérdida de su mascota, el canario Elvis. No entiende lo sucedido. Necesita que alguien se lo explique, y que, a la vez, la acoja y comparta su dolor.*

## ***¿CÓMO ES POSIBLE?! LA HISTORIA DE ELVIS***

---

- 1.- Zer da gehien gustatu zaizuna? *¿Qué es lo que más te ha gustado?*
- 2.- Zerk larritzen du neskatoa? *¿Qué le preocupa a la niña?*
- 3.- Zer pentsatzen dute beste pertsonaiek? *¿Qué piensan los demás personajes?*
- 4.- Ba al dakizu zerk hiltzen duen jendea? *¿Sabes de qué se muere la gente?*
- 5.- Zuk uste duzu noizbait hilko garela? *¿Crees que nos vamos a morir algún día?*

### ***EZ DA ERRAZA KATAGORRI***

---

**Idazlea:** Elisa Ramon

**Marraskilaria:** Rosa Osuna

**Urtea:** 2003

**Argitaletxea:** Kalandraka

**Herrialdea:** Pontevedra

**Laburpena/Resumen:** Ama galdu berri duen urtxintxa txiki batek gainditu behar dituen dolu-faseak zehazten dituen narrazioa. *La historia de una pequeña ardilla que ha perdido a su madre, y las fases de duelo por las que debe pasar.*

### ***EZ DA ERRAZA KATAGORRI***

---

- 1.- Zer da gehien gustatu zaizuna? *¿Qué es lo que más te ha gustado?*
- 2.- Nola uste duzu sentituko dela katagorria? *¿Cómo crees que se siente la pequeña ardilla?*
- 3.- Ba al dakizu zerk hiltzen duen jendea? *¿Sabes de qué se muere la gente?*
- 4.- Zuk uste duzu noizbait hilko garela? *¿Crees que nos vamos a morir algún día?*

**2. eranskina: ARGIZAIOLA**

KAIXO!

HURRENGO EGUNETAN *KARTOIA* ERAMAN  
BEHAR DUT GELARA.

GAINERA, *HILABETEA*-REN *EGUNA*-AN GELARA ETORTZERA  
GONBIDATU NAHI ZAITUT.

KAIXO!

HURRENGO EGUNETAN \_\_\_\_\_ ERAMAN BEHAR  
DUT GELARA.

GAINERA, \_\_\_\_\_-REN \_\_\_\_\_-AN GELARA  
ETORTZERA GONBIDATU NAHI ZAITUT.





**3. eranskina: ESTABA EL SEÑOR DON GATO**

## El señor don Gato

Estaba el señor Don Gato  
sentadito en su tejado  
marramiau, miau, miau,  
sentadito en su tejado.

Ha recibido una carta  
por si quiere ser casado,  
marramiau, miau, miau, miau,  
por si quiere ser casado.

Con una gatita parda  
sobrina de un gato pardo,  
marramiau, miau, miau, miau,  
sobrina de un gato pardo.

Al recibir la noticia  
se ha caído del tejado,  
marramiau, miau, miau, miau,  
se ha caído del tejado.

Se ha roto siete costillas  
el espinazo y el rabo,  
marramiau, miau, miau, miau,  
el espinazo y el rabo.

Ya lo llevan a enterrar  
por la calle del pescado,  
marramiau, miau, miau, miau,  
por la calle del pescado.

Al olor de las sardinas  
el gato ha resucitado,  
marramiau, miau, miau, miau,  
el gato ha resucitado.

Con razón dice la gente  
siete vidas tiene un gato,  
marramiau, miau, miau, miau,  
siete vidas tiene un gato.

[https://www.youtube.com/watch?v=9Oyz\\_egsKl4](https://www.youtube.com/watch?v=9Oyz_egsKl4)

#### 4. eranskina: LA MORAREN ERRESEINA

*Garabana, A. & Villán, Ó. (2005): La mora. Kalandraka: Sevilla.*

##### MASUSTA

###### **1. orria:**

- Masusta masustondoan zegoen, triste eta bakarrik.
- Inork kalte egongo ez diola uste al du masustak?

###### **2. orria:**

- Bada eulia etorri eta irentsiko du.
- Euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.
- Inork kalte egongo ez diola uste al du masustak?

###### **3. orria:**

- Bada armiarma etorri eta irentsiko du.
- Armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.
- Inork kalte egongo ez diola uste al du armiarmak?

###### **4. orria:**

- Bada arratoia etorri eta irentsiko du.
- Arratoiak armiarma; armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.
- Inork kalte egongo ez diola uste al du arratoiak?

###### **5. orria:**

- Bada katua etorri eta irentsiko du.
- Katuak arratoia; arratoiak armiarma; armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.
- Inork kalte egongo ez diola uste al du katuak?

###### **6. orria:**

- Bada txakurra etorri eta irentsiko du.
- Txakurrak katua; katuak arratoia; arratoiak armiarma; armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.
- Inork kalte egongo ez diola uste al du txakurrak?

###### **7. orria:**

- Bada makila etorri eta joko du.
- Makilak txakurra; txakurrak katua; katuak arratoia; arratoiak armiarma; armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.

- Inork kalte egongo ez diola uste al du makilak?

**8. orria:**

- Bada sua etorri eta erreko du.

Suak makila; makilak txakurra; txakurrak katua; katuak arratoia; arratoiak armiarma; armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.

- Inork kalte egongo ez diola uste al du suak?

**9. orria:**

- Bada ura etorri eta itzaliko du.

Urak sua; suak makila; makilak txakurra; txakurrak katua; katuak arratoia; arratoiak armiarma; armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.

- Inork kalte egingo ez diola uste al du urak?

**10. orria:**

- Bada behia etorri eta irentsiko du.

- Behiak ura; urak sua; suak makila; makilak txakurra; txakurrak katua; katuak arratoia; arratoiak armiarma; armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.

Inork kalte egingo ez diola uste al du behiak?

**11. orria:**

- Bada gizakia etorri eta hilko du.

- Gizakiak behia; behiak ura; urak sua; suak makila; makilak txakurra; txakurrak katua; katuak arratoia; arratoiak armiarma; armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.

Inork kalte egingo ez diola uste al du gizakiak?

**12. orria:**

- Bada heriotza etorri eta eramango du.

Heriotzak gizakia; gizakiak behia; behiak ura; urak sua; suak makila; makilak txakurra; txakurrak katua; katuak arratoia; arratoiak armiarma; armiarmak eulia; euliak masusta, masustondoan zegoela, triste eta bakarrik.

## **5. eranskina: SENTIMENDUAK ANTZEMATEA (EGOERAK)**

### **1. egorea:**

<http://edukame.com/wp-content/uploads/2010/09/madre-e-hija-entrada-colegio1.jpg>

[http://fotos00.diarioinformacion.com/fotos/noticias/318x200/2008-09-17\\_IMG\\_2008-09-10\\_02.52.43\\_X0501VEGA.jpg.jpg](http://fotos00.diarioinformacion.com/fotos/noticias/318x200/2008-09-17_IMG_2008-09-10_02.52.43_X0501VEGA.jpg.jpg)

### **2. egoera:**

[http://fotoenfoque.larioja.com/img/fotos/ninos-disfrutan-barracas-633/prev/barracas-mh%20\(3\).jpg](http://fotoenfoque.larioja.com/img/fotos/ninos-disfrutan-barracas-633/prev/barracas-mh%20(3).jpg)

### **3. egoera:**

[http://static2.todanoticia.com/tn2/uploads/news\\_image/2011/07/09/Envidia.jpg](http://static2.todanoticia.com/tn2/uploads/news_image/2011/07/09/Envidia.jpg)

### **4. egoera:**

<http://4.bp.blogspot.com/-Jhr6SedNR0w/T6QO6DfEoYI/AAAAAAAAAMc0/0dfZKcZM-2U/s1600/natacion+para+los+bebes.jpg>

### **5. egoera:**

<http://escuela.cuidadoinfantil.net/wp-content/uploads/2008/08/cocinero3.jpg>

### **6. egoera:**

<http://www.domingodecine.es/wp-content/uploads/2013/11/Soshite-ba%C3%B1era.jpg>


















**6. eranskina: SENTIMENDUAK ANTZEMATEA (SENTIMENDUAK)**




**HARRITUTA**




**HASERRE**




**BELDURTUTA**



**NEGARREZ**



POZIK



ISEKA

7. eranskina: ESKELA / JAIOTZA LIBURUA

Agurtu nahi denaren izena

**AGURTU NAHI DUT  
IZUGARRI MAITE DUDALAKO.**

Agurtu nahi  
denaren  
marrazkitxo:  
jaiotako / hildako  
pertsona /  
animalia...

Herria-N: Ikaslearen izena eta abizena.

**MUXU HANDI BAT.**



---

AGURTU NAHI DUT  
IZUGARRI MAITE DUDALAKO.

\_\_\_\_\_ N: \_\_\_\_\_

MUXU HANDI BAT.

